

uk

94. zenbakia / 2006 otsailak 19





Egonaldiak **euskaraz** zure lagunekin

(1994 eta 1999 bitartean jaiotakoentzat)

NOIZ	NORA	PREZIOA	MATRIKULA
Marxoaren 3tik 5era <i>Del 3 al 5 de marzo</i>	Urduña	32 €	Otsailaren 20tik 23ra <i>Del 20 al 23 de febrero</i>
Apirilaren 18tik 21era <i>Del 18 al 21 de abril</i>	Lurraska	56 €	Apirilaren 3tik 6ra <i>Del 3 al 6 de abril</i>
Umiaren 11tik 15era <i>Del 11 al 15 de octubre</i>	Pasai Donibane	64 €	Urriaren 2tik 5era <i>Del 2 al 5 de octubre</i>
Abenduaren 5etik 10era <i>Del 5 a 10 de diciembre</i>	Segura	80 €	Azaroaren 27tik 30era <i>Del 27 al 30 de noviembre</i>



Informazioa

EUSKARA ZERBITZUA
Jose Ramon Aketxe plaza 11
(Kultur Leioa)
94 607 25 76



UK galeria > Gonzalo M. Azumendi



Seguru asko eskualdeak eman duen argazkilaririk ezagunena da Gonzalo M. Azumendi (Getxo, 1960). Bere argazkiak prestigio handiko makina bat aldizkaritan argitaratzen dira etengabe: Geo, National Geographic... Liburu batzuk ere eginak ditu, esaterako, Boliviako gobernuak eskatuta herrialde haren gainekoa. Argazkilaririk arrakastatsua da, baina berarengan azpimarragarriena bidaiekiko daukan zaletasuna da. Izan ere, ibiltari porrokatua da Gonzalo eta ehun herrialde baino gehiagotan egona dela esan digu. Beti kamera aldean bizitzaren alde alai, polita islatzen saiatzen da bere argazkietan. "Irudietan bizipoza, bizitzaren musua deitzen dudana harrapatzea da nire egneroko lan umilaren helburua".



«Begiak noraino, nahia haraino» Euskal esaera zaharra

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Gorrondo. Asier Mentxaka.
- PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Joseba Santxo. Photoshop.
- LEHEN ETA ORAIN. Lamiako.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Kini.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Urtarileko elurra, Asier Mentxaka.
- ARGAZKIA. Aitor Galbarriartu.
- BERBETAN. Jabi Lauzirika, Unai Brea.
- FOTOGRAFIA. Agate Deuna.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Zeru horiek.
- MUSIKA. Metak, agur. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Raymond Queneau. Liburuaren erreseinak.
- KIROLAK. Garazi Sanchez surflaria.

EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Pirritx eta Porrotx, Unai Brea.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Ayoberri sagardotegira.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Berango futbol taldea, Bittor Egurrola
- AITORMENAK. Nerea Alias, Bea Majuelo.



30 Jabi Lauzirika



21 Mikel Gorrotxategi

Berbetan

Hamar urte bete ditu aurtien Biboko Kafe Antzokiak. Proiektu arrakastatsua honen someratik bertan ibili den Jabi Lauzirikarekin egon gara.



34 Agate deuna



49 Garazi Sanchez



58 Nerea Alias



14 Oraitxe

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubra 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERRREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Bea Majuelo

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Ametzaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	--

	<p>Leioako Udala</p>		<p>Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
--	----------------------	--	--

	<p>Erandioko Udala</p>		<p>Aldizkari honek Erandiko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du</p>
---	------------------------	---	---

	<p>Goleiko Udala</p>		<p>Aldizkari honek Sopranako Udalaren laguntza jasotzen du</p>
---	----------------------	---	--

	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>Eroski Fundazioa</p>		<p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sarearen dirulaguntza jaso du</p>
---	-------------------------	---	---

	<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>
---	---

gugeu

UK lagundu

Urtero legez atzera gatozkizue, irakurleak, laguntza eske. *“Berriro ere diru eskean datoz hauek”*, pentsatuko du zuetariko batek baino gehiagok, eta ez da oker ibiliko. Izan ere, zoritxarrez edo zorionez dirua nahitaezkoa da proiektuak gauzatzeko, kasu honetan, aldizkari hau egiteko.

Jakin badakizue, ordaindu zein ordaindu ez, UKren harpidetza egiten duzuen guzti-guztiori etxera bialtzen zaizuela, gure helburua eta nahia euskara bazter guzti-guztietara zabaltzea da-eta. Eta horretan ahalegintzen gara. Zorionez, asko zarete aldizkari hau diruz laguntzen duzenok. Zuoi, bihotzez, gure esker ona! Zuon diru-laguntza barik nekez egin ahal izango genuke UK.

Idazki hau, ostera, gainontzeko irakurleei zuzenduta dago, hau da, diruz laguntzen ez gaituzuenoi. Ez dugu asko eskatzen: urtean 20 UK egiten ditugu, eta 20 euroko laguntza eskatzen dizuegu. Ez da asko UK etxean hamabostean behin jasotzeagatik, ezta? Lagundu gura bagaitzue gure bulegora (94 491 13 37) deitzea besterik ez duzue egin behar, edota ale honetan argitaratu dugun fitxa bete (33. orrialdea) eta guri helaraztea. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Baina UK beste era askotara ere lagundu ahal duzue. Esaterako, zuen lagunak harpidedun eginez, aldizkari honen berri emanez, aldizkarian argitaratzeko argazkiak zein testuak bialduz...


Horrela, denon artean, handiago egingo dugu UK!

UK-ko lantaldea

irakurleak


Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Goizero irakurri > **berria**

[irudia]



BERANGO, 2006KO OTSAILA

Agur, Gorrondo / Getxo eta Berango banatzen duen Kandelu erreken alboan, Berangoko aldean, Gorrondo izena duen ingurua dago, edo zegoen. Baserri batzuei ere izena ematen die Gorrondok: Gorrondo Goikoa, Erdikoa... Getxoko hondartza baten izenak ere sustrai bera dauka: Gorrondatxe. Aran ederra zen Gorrondo, paregabea, idilikoa.... Adosatua eraikitzen hasi dira orain han. Agur, Gorrondo! m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Hipokresia mugagabea

lazko irailaren 30ean Danimarkako egunkari batean Mahomaren irudi barregarri batzuk argitaratu ziren. Handik hilabete batzuetara Magazinet aldizkari norvegiarrak beste horrenbeste egin zuen. Antza denez, Islamean aspaldian erabaki zen inoiz ez zela Mahomaren irudiarekin ez negoziarik ez komertziorik egingo, eta irudiok argitaratzerakoan heriotza mehatxuak egiterainoko haserre bizia piztu da hainbat musulmanen artean. Frantziako komunikabideren batek ere, mehatxatutakoekiko elkartsaunez edo, antzeko beste irudi batzuk argitaratzea erabaki du. Bati baino gehiagori irudituko zaio irudi ziztrin batzuegatik hain urrun iristea gehiegizkoa dela. Ni neu ere iritzi berekoa nauzue. Dena dela, benetan poztuko nintzateke noizbait inork Espainiako Erregea Erreginarekin uzki-sarketa praktikatzeko-edo eta Aita Santua kanpaia jotzen (esan nahi dut, Batikanoko kanpandorreko kanpaia ez den beste hori) irudikatuko balitu. 4

IRITZIA

“Zer eskatzen diozu egun berri bakoitzari? Zeintzuk dira goizero ohetik altxatzeko zure arrazoiak”. Gai hau proposatu diegu hainbat laguni. Gogoeta hauek hurrengo zenbakietan argitaratuko ditugu txoko honetan. Erantzuten lehenengoa Joseba Santxo izan da.

Ohetik altxatzeko
30 arrazoi lotsabako

- 1) **Arrazoi pragmatikoa.** Eguna ikaragarri korapilatzen da ohetik berandu altxatuz gero...
- 2) **Arrazoi anatomikoa.** Gorputzak, jarrera berean luzaro egon ondoren, atsegin ohi du jarrera aldatzea.
- 3) **Ikasitako arrazoi.** Lanak duindu egiten gaitu eta goizetik altxatzeak lanean ordurik onenak emateko aukera eskaintzen digu.
- 4) **Arrazoi lirikoa.** Altxatuko naiz jada, balkoira irten eta txoriño goiztarren txorrotxia bertatik bertara entzuteko eta eguzkiaren lehen printzez nire begi-gogoak asebetetzeko.
- 5) **Arrazoi umoretsua.** Burkoak nire aurpegiaren itxura hartu du; altxa nadin nire aurpegiak burko-itxura hartzen hasi baino lehen!
- 6) **Gezurezko arrazoi.** Ondinokarren bost minutu dekodaz...
- 7) **Arrazoi gastronomikoa.** Mmmmmmm! Kafe egin berriaren usaina har dezaket...
- 8) **Arrazoi oniriko interesatua.** Iratzargailuak jo ote du? Ametsetan joko zuen...
- 9) **Arrazoi fisiologiko larria.** Gernu-puxikaren barruko isurkia kanpora ateratzeko bidea bilatzen ari daaaaaa!!!
- 10) **Biziraupeneko arrazoi numerikoa.** Etxean zazpi gara eta komun bakarra dago.
- 11) **Arrazoi inozoa.** Gaur agian loteria tokatuko zait...
- 12) **Arrazoi konformista.** Tira, gauean berriro izango dut ohera sartzeko aukera.
- 13) **Arrazoi intsumisioa.** Kauenzot! Arrazoiaren bat behar ote dugu beti zeozer egiteko!
- 14) **Arrazoi akustikoa.** Baleee, banooooooooo!!!
- 15) **Arrazoi sozial-insolidarioa.** Tximin! Tximin!
—Bai, esan.
—Hi, potrohandi, atzo ez gintzazan lotu futin eiteko?
- 16) **Arrazoi mehatxukorra.** Egun on, entzuleok! Zazpiak dira eta eguneko albisteekin hasi behar dugu...
- 17) **Arrazoi eskasa, baina jator-jatorra.** Altxaporru! Euuuuupppp!!!
- 18) **Arrazoi metodo-logikoa.** 8:00ak dira eta ohean nago. 8:30ean lantokian egon behar dut; beraz 8:05ean dutxara sartu behar dut, 8:10ean...
- 19) **Arrazoi intelektuala.** Jakiteak ez du lekurik okupatzen, baina herriko liburutegia arin okupatzen denez, bizkor ez banabil...
- 20) **Arrazoi periodistikoa.** Ea egunkaria heldu den...
- 21) **Arrazoi sinesgaitza.** Hau da kasualitatea! Astelehena da eta gaixorik nago!
- 22) **Arrazoi falta.** Ene, bada! Ez dut topatzen ohetik altxatzeko arrazoiarik!
- 23) **Arrazoi estetikoa.** A zer itxura izan behar dudan ileokin!
- 24) **Arrazoi derrigortua.** Ti-ti-ti-ti, ti-ti-ti-ti... Kaka zaharra! Hau gertatzen zait iratzargailua gelako beste mandan ipintzeagatik.
- 25) **Arrazoi zoo-logikoa.** Oker! Urten galapan ixerapetik!
- 26) **Arrazoi argia.** Kanka! Aaaii! Banengoen, ba, lanpara txarto amarrata utzi nuela-eta!
- 27) **Arrazoi perbersoa.** Banesa!!! Lagundu, mesedez, atzo ipini zenizkidan lokarriak askatzen.
- 28) **Arrazoi fisiko-empirikoa.** Mugimenduan doan gorputz zutikakoari gutxiago eragiten dio luraren erakarpen-indarrak, luze-luze etzanda dagoenari baino.
- 29) **Arrazoi fisiko-pirikoa.** Suaaaa! Suaaaa! Suaaaaaaa!!!
- 30) **Azken arrazoi.**
—Esan deunat, ba, hilik jagon!
—Arrazoi! Baina zelan barrunta don?
—Holango zeozerk izan behar jonan, ze gure lagun Arrazoniok arrazoi handia behar jon ohetik ez altxatzeko! 4

Joseba Santxo

[lehen]



KULTUR LEIOA

[orain]



ASIER MENTXAKA

photoshop > makila bereziak



Irudiak eta manipulazioak A. M.

Iraganez doa denbora* beti / LAMIAKO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Galeako labarra




Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Gau ilunean tabako bila ateratako senarrak, senar jipoiek ubeldutako etxeko andre suharrak, katekesian fraideen altzoan eseri ohi ziren haurrak, baineran zainak ezin mozteaz gogaitutako koldarrak... Galea, zugaran elkartzen ditu hoiek denak zoritxarrak, nola olatuen kolpe bortitza hiltzen duen Abran barrak euren arimen azken arnasa leher dezan zure labarrak.

“Nola demontre azalduko dut gaya naizela etxean?”
“Anetxo ez zen hilda egongo ni sartu banintz kotxean”
“Minak hiltzen nau bortxatzaileaz gogoratu bakoitzean”
“Hil da Jainkoa edo ez ninduen entzun gura oitotzean”
“Ez dut egon nahi ziega batean bizirik heriotzean”
“Ez dut argirik ikusten nire penaren zulo beltzean”...
Haizeak hori xuxurlatu dit zure lurmutur ertzean.

Harri batera lotuta dago joan zenaren oroimena eta loreek azaltzen dute hemen utzitako pena. Inork pentsatzen badu badela deskantsatzeko orena eta Galean behingoz betiko ahaztu nahi badu dena: bere burua, bere lagunak... finean, norbera dena, gogoan izan dezala gero norentzat den atsedena ez baita soilik bere burua salto egingo duena.

* Doinua: Enarak hegan baxu dabilta



txistea > Einstein

Ikasle batek besteari, eskutan fisikako liburua daukala:
—Aizan! Albert Einstein hau -argazkia erakutsiz- bizkorra izan zunan, baina baita itsusia ere!
—Hau itsusia? Hau ez dun ezer! Itsusi amorratua bere anaia zunan: Frank!

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

legea > zigarroaren berbakera

Urte berria, lege berria... ohitura, mendekotasun zaharrak? Taberna, kafetegi, jatetxe... ia denek eskegi dute kartela erretzearen kontura. Egia esan, gure argazkilariaren klikpean erori diren gehienek zigarroa isiotzeko baimena ematen dute. Hori bai, bakoitzak bere modura: iparraldeko eleak gurera hurbilduz, erraz eta zehatz azalduz, umore doinu batez, erretzaileari zuzenduz, labur eta ulergarri... legea gogoraziz besteek... Baimena, ukoa. Bata ala bestea azaltzeko hamaika bide, zuzenagoak ala okerragoak, egokiak ala ulertzeko gataxak... Eta Euskaltzaindiak zer dio? Guk zigarroaren berbakera oraindino arautu barik dagoela diogu. m



Herrian topatu ditugun kartel batzuk



armarriak > leioa

Leioako udalerrriak, datu ofizialen arabera, hiru armarri ezberdin izan ditu historian zehar. Lehen, XIX. mendetik aurrera erabili izan zuten. Bigarrena, XX. mendeko lehen hamarkadetakoa agiri ofiziletan agertzen da eta, antza, Ondiz leinuaren armarrria izan zen. Gaur egun, udalerrriaren armarrria bi zati ezberdinetan banatuta dago, irudian ageri den moduan. Batetik, ezkerreko aldean, zuhaitz batera helduta dagoen hartza agertzen da; zuhaitzetik, berriz, gurutze bat gailentzen da. Bestetik, Armarrriaren eskumaldean, urrezko dorre bat dago. Armarrri hau 90. hamarkadaren hasieran sortu zuten Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik. Bertan, aurreko armarrrietako zenbait elementu mantendu dira; hala nola, dorrea, arbola, gurutzea eta hartza. m

Leioak gaur egun darabilen armarrria

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

[talaia]

san blas > egun handia Barrikan



Urtero legez otsailaren 3an herriko egun handietako bat -bestea San Juan da- ospatu zuten barrikarrek: San Blas eguna. Armenia urrunekoa ei zen eliza katolikoak aspaldian santu izendatu zuen apezkiku eta martiri hau, eta IV. mendean-edo bizi izan zen. Bere meritu horiengatik baino, zamako minak arintzeko bere izena daroaten kordoi bedeinkatuengatik ezagutzen dugu gehienok santu hau. Barrikan asko izan ziren meza entzun eta gero kordoi miragarri hura jantzi zutenak. ^m

Barrikan atera genituen argazki hauek



[erretratua]

Zapatak konpontzen eta arimak arintzen zoriotsua dela aitortu digu Kinik

Kini > zapata-konpontzaile zoriotsua

Juanmari Grandes da jaiotza-agiriaren arabera, baina ia inork ez daki hori dagoeneko. 48 urteko erromotar hau Kini da denontzat, beraren negozioaren errotuluak ere -Bidezabal inguruan- ederto adierazten duenez. *Kini zapatero* dio, zehatzak izateko, errotuluak. Izan ere, zapata-konpontzailea da erakuslehoaren beste aldean egoten den gizon abegitsua, halaxe erabaki zuelako orain dela zazpi urte inguru. *“Garraio-entresa batean nembilen gerente, baina arazo batzuk egon ziren eta guztiz nazkatuta amaitu nuen mundu horregaz”*. Bizimodua errotik aldatu gura zuela-eta, bere etxetik larregi urrundu barik negozio bat ipintzeko aukerak aztertzen hasi zen. Ideia asko baztertu ostean, eta merkatu-azterketaren bat ere tarteko, zapata konpontzeari ekitea erabaki zuen akabuan. Ez zekien lanbidez ezer, ordea. *“Lagun batzuen bitartez Txurdinagako zapatarri bategaz harremanean jarri nintzen, eta hagaz ibili nintzen beharrean, urtebetez”*. Marka ederra, 40 urte beteak eta apendiz. Azkenik, ikasi beharrekoei ikasita iritzi eta bere denda ipini zuen. Oinetako konponketa ez da XXI. mendeko negozioa, baina. *“Nik egiten dudana garestia da, eta askotan jendeak, gazteek batez ere, gunago izaten du zaharrak bota eta barriak erosi”*. Horregatik, Kini bestelako zerbitzuak ere opezten ditu bere denda txikian. Debaldeko batzuk ere bai, dioskunez: *“Jende ugari etortzen zait egunero, eta askoren konfessore izatea egokitzen zait sarritan”*. Zapatak konponduz eta arimak arinduz, zoriotsua dela aitortu digu Kini. Sinistu egin diogu. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhamilton@euskalnet.net

VASCASA inmobilia -

Vascasa Sopelanak irabazien %3 bezeroak aukeratzen duen Gobernu Kanpoko Erakundeari ematen.

- Zure etxebizitzaren dohainezko balorazioa
- Vascredit finantziarioa, zure neurria
- Zure salerosketen kudeaketa osoa
- Zure etxebizitza saldu baino lehen, jarri gurekin

Eleizalde kalea z/g. 48600 Sopelana
t.: 94 676 37 08 - Fax: 94 676 50 18 - sope-

Azkenengo pasonibela, behingoz

Hamar urte luze ihes egin eta gero, **datorren urteko** lehenengo hiruhilekoan hasiko ei dira **Maidaganeko trenbide-pasagunea lurperatzeko** lanak

Metroa eraikitzeaz eta ustiatzeaz -Metro Bilbao, S.A. elkartearen bidez- arduratzen den Bizkaiko Garraio Patzuergoak (BGP) orain dela aste batzuk onartu zuen Getxoko azkenengo pasonibela, Andra Mariko Maidagan kalean dagoen trenbide-pasagunea, lurperatzeko egitasmoa.



Getxoko Maidagan kaleko pasagune gatazkatsua

Hasiera batean, metroa Santurtzira eta Basaurira heltzearen osterako (2010 inguru) utzi gura zuen BGPk Andra Mariko trenbide-pasagunea edo pasonibela lurperatzeko egitasmoa. Ostera, orain dela gutxi gorabehera urte bat Jose Luis Bilbaok, Bizkaiko Diputatu Nagusia eta Metro Bilbaoko lehendakaria denak, Maidaganekoari lehentasuna ematea erabaki zutela iragarri zuen.

Pasagunetik hurbil Geroa Ikastola, Nuestra Señora de Europa ikastetxea eta geriatriko bat daude eta pasonibelak eragiten dituen segurtasun arriskuak aspalditik jakinarazi dituzte bizilagunek. Azken hamar urteotako burukominarentzat, behingoz, botika heldu dela ematen du. Badirudi iraganak eroango dituela gose greba, elkarretaratze, Ertzaintzagaz tirabira, istilu eta abarren oroitzenak. Hala ere, aurtengo urteak ere bereak egin beharko ditu Maidaganeko pasagunea lurperatzeko lanak hasi baino lehen. 2007ko lehengo hiruhilekoa aipatu dute ardura-dunek lanen hasierari ekiteko; egin beharreko tramite guztiak itxi eta gero. Bi urte-edo beharko dituzte 150 metroko trenbi-

dea lurrazpian ipintzeko. Hala, 2009rako aurreikusi dute 17 milioi euroko aurrekontua daukan lanen amaiera. Egitasmo horren ondorioz, Bidezabal eta Berango artean geltoki berri bat eraikiko dute: Ibarbengoa. Horrez gainera, geltokiaren alboan 300 bat lekutako aparkalekua egiteko asmoa daukate.

«17 milioi euroko aurrekontua dauka pasagunea lurperatzeko proiektuak»

Getxoko alkate Iñaki Zarraoak gogo onez hartu du laster pasagunea lurperatzea, dena dela, lanek eragingo dituzten eragozpenak ere hartu ditu gogoan: “*Bi urte zail izango dira, leku oso estua da, bi kale oso estuak; gainera, zerbitzua ez eteteko behin-behineko neurriak hartuko dira,*

eta adb. Bidezabal eta Maidaganeko bizilagunek ezin izango dituzte euren garajeak erabili”. Horren albotik, kaltetuei beste aparleku batzuk doan utziko dizkiete.

Amaitzeko, ia laster Urdulizkoak hartzen duen metroa lurperatzeko hurrengo txartela. m

Jakingarri

- 2007an hasiko dira lanak.
- **Bi urte inguru** iraungo dute egitekoek.
- **150 metroko** ibilbidea egingo du lur azpitik metroak Maidaganen.
- **17 milioi euroko** aurrekontua zuzenduko dute pasabidea lurperatzeko.
- **Aparkaleku berriak** eskainiko dizkiete auzokideei lanak iraun bitartean.
- **Ibarbengoa geltoki berria** Bidezabal eta Berango artean.

Portu Zaharreko orubeak

jabetza publikoa izaten jarraituko du, baina ustiaketa esku pribatuetan utzi gura dute



Portu Zaharreko orubea

Abenduan Getxoko Udal Batzarrak Hirri Antolamenduko Plan Orokarraren (HAPO) puntu zehatz bat behin-behinean aldatzea erabaki zuen: Portu Zaharreko orubearen izaerari dagokiona. Orubeak Ekipamendu Publikoko izaera zeukan, aldatetako eremuaren kudeaketa eta ustiapena esku pribatuetan uzteko aukera eskainiko luke. Getxo Bizia plataforma ez dago ados erabakiagaz, eta aurrera egin ez dezan dihardu. Portu Zaharreko auzotarrei eta bestelakoei egoeraren berri eman zieten plataformako kideek eta laster herritarrek batera kontrako alegazioa aurkeztuko dute, 700 atxikimendu batu dituzte dagoeneko. Getxo Bizia Josu Amezagak azaldu duen legez arazoak hauenek dira: “*Ekipamendu publikotzat deskalifikatzeak esan nahi du ezingo litzatekeela adb. parke bat*

egin; gainera proiektu zehatzik ez badago itxaron beharko litzatekeela uste dugu; igerilekuen esperimentzia ere hor dago, ustiapen pribatuaren esku zegoen, eta porrot... Portu Zaharrekoek eta beste herritarrek iritzia emateko aukera eduki behar dutelakoan gaude”.

Getxoko Alkate Iñaki Zarraoak azaldu duenez, “*Udalak 2 aukera dauzka: goitik behera Udalak berak eraman kudeaketa, ala hori esku pribatuetan utzi; azkena erabakita ere, jabea Udalarena izango da, ustiaketa bakarrik utziko guke esku pribatuetan, horrela daude Aixerrota, Usategi...*”. Orubean talasoterapia zentro bat jartzeko asmoa ei dago: “*Haren kudeaketa pribatua izango litzateke, orubearen %10 hartuko luke soilik*”, aurreratu du Zarraoak. m

EREAGAKO IGOGAILUAREN BALORAZIO ONA

Ereaga eta Maria Kristina parkea elkartzen dituen igogailua, 2005eko ekainaren 17an inauguratu zenetik, 110.640 lagunek erabili dute Udaletxeak aditzera eman duenez. Egindako aurreikuspenen arabera, urtean 200.000 bat pertsonak erabiliko dute garraio bide hau euren eguneroko bizitzan. Udalerriko agintariak pozik agertu dira, proiektuaren hasieran ezarritako erentagarritasun zenbakia (80.000 erabiltzaile) nabarmenki gainditu da eta.

SAHARAREN ALDEKO KARABANA ABIAN DA

Herri saharauiak bizi duen egoera larria ikusita, Getxoko Udalak Garapenerako Lankidetzaren arloaren bitartez 18.000 euro bideratuko ditu “Sahararen aldeko II Euskal Karabana: Piztu Itxaropenari” premiazko laguntza emateko. Ildo honetan ere, ATFALek 4,2 tona elikagai batu ditu. Getxon nagusiki, ikastetxeetan egindako kanpainaren harira.

ITSAS BIDAIETARAKO KAI BERRIA MARTXAN

Getxon egin den itsas bidaia luzeetarako kaia joan den otsailaren 2an estreinatu zen “Midnatsol” izeneko 15.000 tonako itsasontzi norbegiarraren etorreragaz. Kai berri honek 31 metro luze, 17 metro zabal eta 16,5 metro ditu sakoneran. Inaugurazio ekitaldian Getxoko eta Portuko hainbat agintarik hartu zuten parte, besteak beste, Garraio Bideetako zinegotzi Nuria Lopez de Guereñuk, Bizkaiko ahaldu nagusi Jose Luis Bilbaok eta Udaleko alkate Iñaki Zarraoak.





AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN



• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirillean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

Birziklapenak 2005ean gora egin du

Getxoko udalak iazko birziklapenaren inguruko datu ofizialak eman ditu ezagutzera. 2005ean 29.216.575 kilo hondakin batu ziren, hauetatik, 5.222.519 kilo hondakin birziklagarriak izan zirelarik. 2004ko kopuruagaz alderatuta iaz bi tona hondakin gehiago eroan ziren zabortegeira. Horiei dagokienez, 2005ean 3.000.307 kilo paper (%8,8 gehiago); eta 1.318.813 kilo beira jaso ziren. Arropa zahar gehiago batu zen, baina pila gutxiago, 7.256 kilo hain zuzen ere, eta fluoreszente kiloak 1.280 izan ziren. Horrela, guztira, 2005ean %6,17 igo zen batutako hondakin birziklagarrien kopurua, ondorioz ingurumenerako onuragarria; izan ere, besteak beste, 42.000 zuhaitz, 1.634 tona lehen-gai eta petrolio aurreztu direlako. m



ARROPA ETA OINETAKOEN BILKETAK GORA EGIN ZUEN 2005EAN

Berohik, arropak eta oinetakoak berriro erabiltzeko batzeaz arduratzen den kooperatibak 2005eko datuen berri eman du. Irabazirik gabeko xedeaz diharduen kooperatiba honek Getxoko edukiontzietan iaz 2004ean baino %11 materiale gehiago jaso zirela adierazi du. 2005ean 228.044 kilo arropa, oinetako eta osagarri batu ziren, hiritarren eskura eta eurengandik hurbil dauden herriko hainbat lekutan, hala nola, eleizetan, osasun etxeetan, azoketan, etab. kokatutako 18 edukiontzietan.

Oraintxe, mezularitza lasterra

“Bizikleta bidezko banaketa berria da gurean, baina esaterako Holandan aspaldi dago”



Gobelaurre kaleko 7.enean dago Oraintxe. Harremanetarako: 94 480 37 57 edo www.oraintxebi.com

Oraintxe mezularitza enpresak 8 urte daroaz Bilbon zerbitzua eskaintzen eta orain dela hilabete batzuk Erromon zabaldu du egoitza berria. Distantzia laburrak direnean herri barruko zerbitzua, bizikletaz egiten dute eta motor elektriko bat ere badaukate. “Ingurumena zaintzeko ardura duen taldea dugu”, goraipatu du Juan Egiluz gerenteak.

—Zerk bereizten du Oraintxeren eskaintza?

—Mezularitza tradizionalak eskaintzen dituen zerbitzuak eskaintzen ditugu, bereizten gaituena da, nolabait, hiriguneko edo herriguneko banaketak bizikletaz egiten ditugula. Hori berria da hemen, baina AEBetan edo Holandan oso ondo eta aspalditik funtzionatzen dute horrelakoak. Gero, herrigunetik kanporako motorrak dauzkagu eta pakete handiak garraiatzeko furgoneta bat. Getxon 4 bizikleta ditugu eta 2 txirindularik dihardute. Motorren artean bat elektriko da, baina autonomia arazoak konpondu behar ditugu: bateriaz funtzionatzen du eta distantzia laburretarako bakarrik irauten du, 30 km inguru egin ditzake. Gehiago irauten duten bateriak agertzen direnean bidaia

denak elektrikoakaz egitea da gure asmoa, motor normalagaz egiten ditugunak ere bai. Ibilgailu industrial hibridoren bat merkatu-ratuko balute, hori ere erabiliko genuke.

—Gizarte ekintza ere garatzen duzue, ezta? —Enpresaren zutabe bat da hori, baina ez diogu publizitate larregirik eman gura, uste dugulako merkaturatuz normalizatu behar dela. Gizarteratze-enpresa gara, irabazi asmo bakoia, etekinak banatzen ez dituztenak. Hau da, S.L. bategaz kontrajarria izan daiteke hori, baina ez dugu ezkututzen irabazirik ez daukagunik, etekinak berriro inbertitzen ditugu. Halaber, beharginen %75 gizarteratzeko zailtasuna daukatenak dira: kartzelan egondakoak,

«Ahalik eta poluzio akustiko eta atmosferiko txikiena eragitea da helburua»

etorrikin... Alabaina, Getxon, lan merkaturatuzko trabaren bat zeukaten getxoztarrei zuzendu genien lanerako deia. Bestalde, beste zutabe bat garapen jasagarria da, ingurumena zaintzea. Helburua, eta horretan ahaletan handiena egingo dugu, ahalik eta poluzio akustiko eta atmosferiko txikiena eragitea da. m

Algortan kafe antzokia eta Ibarbengoan kulturune handi bat eraikitzeke asmoa duela plazaratu du Udalak



Ibarbengoa edo Ibarberango ingurua

Getxoko alkate Iñaki Zarraok aurreratu duenez, Getxoko udala bi kulturune berri eraikitzeke aukerak aztertzen dabil. Bata Kafe Antzokiaren tamainakoa edota itxurakoa izango litzateke eta Algortako Hiltegi ohiaren inguruan eraikiko lukete. Ingurune horretan etxebizitzak egiteko eta alde hori urbanizatzeko egitasmoa dago, eta lanak urte bete barru hastea aurreikusten dute. Bertan altuera handiko lonjak eraikitzeke aukera dago eta horietan lekutuko lukete 2009rako eraikita legokeen Kafe Antzokia.

Bigarrena, Ibarbengoako metro geltoki berritik hurbil paratuko lukete. Alde horretan parke teknologiko edo industrialde bat sortzeko asmoa dauka Udalak, eta hainbat etxebi-

zita ere bai. Horrez gainera, kulturune handi bat egiteko egitasmoa plazaratu dute; “*auditorio antzeko bat, besteak beste, gazteentzako ekitaldiak antolatzeke aukera emango lukeena*”, aurreratu du Zarraok. Ibarbengoako proiektua urte eta erdi barru onar daitekeela gaineratu du Getxoko alkateak.

Edozelan ere, kontuan hartzekoa da 2007ko udal hauteskundeak bitarte horretan egingo direla eta egitasmoak sasoi horretarako iragarrita daudela.

Amaitzeko, Getxo Antzoki berria eraikitzeke egitasmoa aurre onartzeko asmoa dute: 800 bat lagunentzako jesarlekuak edukiko ei ditu eta dagoeneko jaso dute Madrilgo gobernuaren 1.000.000 euroko laguntza. m

MUSIKOTERAPIA IKASTAROA HAURDUNENTZAT

Villamonteko kultur etxean (edo Larrabasterran) eskainiko duten doako musikoterapia ikastaroa, momentuz, haurdun dauden emakumeei zuzenduta egongo da bakarrik. Berango, Bilbo eta Txileko hiru gaztek Maite Zornotza, Olatz Gabiria eta Lutxok (musika irakaslea, emagina eta musikaria) musikoterapia master bat egiten dabilta eta eurek izango dute ikastaroa emateko ardura. Eskolak astean behin izango dira, euskaraz zein gazteleraz egiteko aukera dago eta ordu pasatxoko iraupena dute.

Harremanetarako: 665 757 506

V. ABRA SARIA HILAREN 25EAN EGINGO DA

ALBEK (Algortako Bertsolari Eskola) bertsolari gazteei begira urtero antolatzen duen Abra saria aurre otsailaren 25ean egingo da. Areetako Andres Isasi Musika Eskolako oholtzara 19:00ak aldera igoko dira Alaia Martin (Oizartun), Julio Soto (Gorriti), Beñat Vidal (Laioa), Xumai Murua (Azkaine), Ibai Guridi (Elorrio) eta Beñat Gaztelumendi (Añorga). Abrakia garaikurra nork eskuratuko eta txapela zeinek bururatuko duen ikustera joan gura duen bertsolazaleak ALBE, UK eta Kultur Etxean batu dezake gonbidapena.

KULTUR ETXEAK 2006KO PROGRAMAZIOAREN AURKEZPENA EGIN DU

Urtero legez, Getxoko kultur etxeak 2006ko programazioa aurkeztu berri du. Ekitaldi nagusien artean, nabarmentzekoak dira, XXIV. Haur Zinema Jardunaldiak (apirilak 18-23), Getxoarte 2006 (maiatzak 19-21), XVIII. Nazioarteko Blues Jaialdia (ekainak 9-11), XXX. Nazioarteko Jazzaldia (uztailak 1-5), XXII. Dantza eta Folklore Jaialdia (uztailak 21-23), XXII. Nazioarteko Folk Jaialdia (abuztuak 31-irailak 3), V. Erdi Aroko azoka (irailak 15-17) eta V. Komiki Azoka (abenduak 1-3), beste askoren artean. Programazioan aniztasuna eta kalitatea lehenesten saiatu dira Kultur Etxetik.

Taberna Berri
Sarikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokoa
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 94 430 76 96

VIEJO

kopak eta giro jatorria

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Laguntza sozialak

Hilero 205.000 euro bideratzen dituzte Erandioko Gizarte Zerbitzuek **1.000tik gora laguntzentzat**

Erandioko Gizarte Ekintza sailak Gizarte Larrialdien 518 laguntza eskaini zituen joan den urtean zehar, 2004an baino 67 gehiago, hain zuzen ere. Horretaz gain, oinarritzko errentarako laguntzak eskatu zituzten 182 pertsonentzako txosten berriak ere bideratu zituen. 105 eskakizun etorkinek egin zituzten, hauetako 60 legezkoatasun egoeran zeuden eta 45ek lortzeko bidean daude oraindik ere.

Gizarte Zerbitzuek aurkeztu duten balantzearen arabera, Erandioko udalerrriak 495 oinarritzko errenta kudeatzen ditu. Udaletxeak, guztira, 203.865 euro bideratzen ditu hilean errenta hauek asetzeko eta aurkeztu dituzten datuen arabera, 1.031 pertsona dira diru-laguntza hauetaz gozatzen dutenak. Iaz, 164 onuradun berri onartu ziren.

Ostera, ehunka kontzesio bertan behe-geratu ziren, hartzaileen egoera ekonomikoak zein lan mundu alorrekoak aldaketa bat jasan ondoren. Beste kasu batzuetan, Gizarte Zerbitzuetako arduradunek iruzurren bat antzeman zuten aurkeztutako eskakizunetan.

Udaletxeak zabalduko datuek, 2004. urtekoekin alderatuta, diru-laguntzen aldetik gorakada eman dela erakusten dute. Izaskun Trabudua Gizarte Ekintzako zinegotziak nabarmendu duenez, "urtero egiten dugu ahale-



Udalak iaz 487.708 euro bideratu zituen Gizarte Larrialdien Laguntzatarako

gin handia behar dituzten pertsonak diru-laguntza hauek jaso ditzaten. Horretaz gain, iruzurren gaineko kontrola areagotzen ere saiatzen gara, gezurtiek, bere horretan jarrai ez dezaten".

«Iruzurra saihesteko neurriak gogortu ditu Udalak»

Iruzurrak saihesteko xedez, poliziak eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariek etxebizi-

ztetan zehar konprobaketak egin zituzten iaz. Gainera, Udaletxeak hitzarmen bat sinatu zuen Bizkaiko Hiri Jabegoaren Ganberagaz, eskatzaileen informazioa eguneratzeko helburuaz.

Konsistorioak 487.708 euro bideratu zituen Gizarte Larrialdien Laguntzatarako, eta hauetako 117 alokairuen ordainketa, etxebizitzetako konponketak eta zorrak ordaintzea bezalako oinarritzko beharizantetara zuzendu zituen. m

Gazte Bulegoa

Urtarilaren amaieran zabaldu zituen ateak gazteen ikasketa, lan eta aisialdi beharrak asetzeko



Erandioko Gazte Bulego berria

Erandioko udaletxearen eraikuntzan partatu dute, kultura sailean zehazki, urtarilaren 25ean ofizialki zabaldu zen Gazte Informazio Bulego berria. Udalaren ekimenez eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz sustatutako proiektu honen helburua, "gazteentzako erreferente bat bihurtzea da, euren beharrak asetzeko xedez burutu dugun egitasmoa da", azaldu dute arduradunek.

Bulegoak makina bat zerbitzu eskainiko dizkie bertara urreratzen direnei: kultura, aisialdia, kirolak, bidaiak, ikasketetarako diru-laguntzak eta lehiaketen inguruko informazioa jaso ahal izango du, besteak beste, zentru berri honetara gerturatzen

den pertsona orok. Horretaz gain, lan-eskaintzen datu-basea eta lan merkatuari buruzko aholkularitza ere eskainiko zaie.

Informazio gune berri honetan, gazteek, eguneroko prentsa irakurri ahal izango dute, interneterako sarbideaz gozatu, atepekide agiria edota ikasle-txartela egin... Bulegoaren berrikuntzetako bat, "Viajetea" edo "Bidaiteka" delakoa da. Arduradunen esanetan, "zerbitzu honen bitartez, kultura eta abentura aktibitate eta bidaiari buruzko informazio topagunea eskeini nahi diegu gazteei".

Gazte informazio bulegoak astelehentik ostiralera izango ditu zabalik bere ateak, 9:00etatik 14:00etara bitartean. m

"HEZITZAILEEK ASKO EGIN DEZAKETE EUSKARAZ" IKASTAROA

Begirale titulua izan edota aisialdian gazteakaz lan egiten dutenentzat egun bateko ikastaroa antolatu du Euskara Zerbitzuak. Martxoaren 5ean (domenak) burutuko da eta jakina, ikastaroa euskara hutsean izango da. Plaza mugatuak dira eta izena emateko azken eguna otsailaren 27a izango da. Horretarako 94 489 01 28 telefonora deitu edota euskara@erandioko-udala.net postara idatzi behar da.

JAIEI BURUZKO ARGAZKI, KARTEL, ZAPI... ETA ABARREN BILA DABILTZA

Erandioko jaiari buruzko argazki zahar, zapi, kartel, egitarau, pasadizo... eta abarren eskean dabilta. Batuko duten material horregaz guztiagaz erakusketa bat antolatzeko asmoa dute. Erakusketa San Agustin jaietarako prestatu gura dute eta alde zuzenetik jakinarazi dute utzitako material guztia itzuliko dutela. Parte hartu gura duenak edota erakusteko zerbait daukanak Kultura arlora (09:00-14:00) edo Gautxorriak taldeko egoitzara (San Jeronimo 22) jotzea besterik ez du.

Harremanetarako:
94 489 01 40 edo 94 467 21 63

GURASOEI BEGIRAKO HAUR MATERIALAREN IKURGIDA PLAZARATUKO DUTE LIBURUTEGIEK

Erandioko liburutegiek gurasoentzako irakurgida editatuko dute. Bertan seme-alaben heziketarako lagungarri izan daitezkeen liburu eta bestelako katalagoa aurkituko dute aita-amek. Horrez gainera, hala gura izanez gero, material horiek guztiak Altagakoko eta Astrabuduako liburutegietan eskuratu ditzakete.

ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz



Arasa

Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91



san inazio

autoeskola
195 in sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Alzaga ikastola

Aurpegi berria erroak mantendurik

Otsailaren 2an eta 3an Alzaga Ikastolak eraikin berria inauguratu zuen ofizialki. Lehenik eta behin, 2an agintarien aurrean ikastolaren aurpegi berria ezagutzera eman zuten, eta besteak beste, Hezkuntza Kontseilariorde Pedro Otxoa, Eusko Jaurlaritzako Baliabide Materialen Zuzendari Mikel Cabello eta Leioako Alkate Karmelo Sainz de la Maza egon ziren eskolaren aurkezpenean. Otsailaren 3an, ostera, Alzaga Ikastolaren “momentu historikoa” ospatzeko jaia antolatu zuten: argazki zaharren erakusketa, Txan Magoa, Klown humoretsua, Txotx festa, etab. Ikastolako ikasle eta guraso ohiak eta irakasle izandakoak ere bertaratu ziren eskolaren etorkizunari babesa emateko.



Igor Legarreta eta Emilio Perez > zinegileak

Espainiako film laburren **sari nagusia** eskuratu dute zinegile leioaztar gazteek



Argazkian Igor Urdaniz, Emilio Perez eta Igor Legarreta

El Gran Zabini, Igor Legarreta eta Emilio Perez zinemagileen zortzigarren film laburra arrakasta itzela eskuratzen dabil. Izan ere, urrian pelikula Sitgesen estreinatu zenetik hainbat zinema jaialditan erakustez gain sari asko eta garrantzitsuak eskuratu ditu. Otsailaren 9an Kultur Leioak euren lana eskaini zuen, filmaren soinubanda musikatu duen Leioako Gazte Orkestaren zuzeneko emanaldi eta guzti.

Emilio Perezek zuzendari eta produktoreak azaldu digunez filmaren istorioa zirko munduaren testuinguru liluragarrian jazotzen da. *“Aita eta seme baten arteko harremanen gona beherak kontatzen diti. Aita ipotxa da eta semea bere itxuragatik lotsatzen da. Aitak, bere aldetik, semearen begirunea inbartzeko ahaleginak egingo diti”*. Lanak irauten duen 15 minutuak iaz filmatu ziren Madrilko Zine Eskolan eta Alcorcon herrian eta 50 profesionalak parte hartu zuten.

Emilio eta Igor, Arte Ederretako Fakultateko Ikus Entzuneko espezialitatean ikasitakoak, 1994. urtean hasi ziren elkarrekin lanean. Ilusio handia eta bitarteko gutxiko hasierako urrats haiek gogoratu dizkigute zinemagile leioaztarrek, *“hiru lagun eta bideokamera eskuan ahal duzuna egiten duzu. Hortik abiatuta inakaskuntza prozesu bat jarruizten da gauza berriak frogatuz”*. 1999an zinemarako lehen film laburra grabatu zuten. Etorkizuneko ogitzat zinea izateko lan egingo dute bi leioaztar hauek. m

Sari batzuk

- Espainiako Film Laburren Sari Nagusia
- Zinebi, Fantasia Laburmetraiarik Onena
- Gasteizeko Cortada Jaialdiko Lehen Saria
- Villeurbanneko Jaialdian Ikuslearen Saria

INDIA TXIROENA KULTUR LEIOAN

Vicente Ferrer Fundazioak Indiako eskualde txiroenetako batean –Anantpur– lantzen duen proiektuari buruzko argazki erakusketa eskainiko du Kultur Leioan otsailaren 27tik martxoaren 26ra. Bertako *dalits* komunitatearen garapena laguntzeko Fundazioak egitasmo integrala jorratzen dabil. Horrela, erakusketan hezkuntza, etxebizitza, osasuna, ekologia, emakumea, minusbaliotasuna eta beste hainbat arlo islatuta ikusi ahal izango dira irudietan. Tokia: Erakusketa aretoa; Ordua: astelehenetatik ostiralera 10:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:00etatik 20:00etara, igandetan 11:00etatik 14:00etara.

EUSKARAZKO IPUINAK

Euskara Zerbitzuak “Ipuindun Eguaztenak” ekimena antolatu du. Otsail eta martxoko lehenengo eguaztenetan, arratsaldeko zortzietan ipuin kontalari batek euskarazko ipuina eskainiko du. Otsailaren 22an Maite Franco iruindarraren txanda izango da. Ipuina 16 urtetik gorakoentzat izango da Mastitxu Euskaltegian (sarrera doan). Martxoaren 1ean, Itziar Rekalde kontalariak ipuin erotikoa edestuko du Kultur Leioa Antzokian (sarrera 2 euro).

INAUTERIEKAK MOZORRO LEHIAKETA

Otsailaren 24an, ostiralan, nagusien lehiaketa izango da. 14 urtetik gorakoek parte hartuko dute banakako zein taldekako –gutxienez bost taldekide-sailetan. Lehiakideek gaueko 21:30ean desfilatuko dute epaimahaiaren aurrean Ikea Barri Plazan ezarriko den eszenatokian. Irabazleen sariketa izango da ondoren; garaikorra eta 300 eta 100 euroko eskupekoak jasoko dute bi kategorietako lehen bi sailkatuek. Txikienen txanda, martitzenean, otsailaren 28an izango da. Arratsaldeko 17:15ean Sakoneta kiroldegiko taula gainean ospatuko da desfilea. Izena otsailaren 21a baino lehen Kultur Leioan eman behar da.

ERROTULOAK



e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta IMPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**ZUHAITZ EGUNA
OSPATZEKO LANTEGIAK
ANTOLATU DITUZTE**

Berangoko kultur etxeak bi adin tarte desberdinetako umeei begira lantegi bana emango ditu Zuhaitz Eguna ospatzeko asmoagaz. Aurten ez ei dute arbolarik landatuko, baina lantegien bidez ospatu gura dute eguna. Horrenbestez, hilaren 23an, eguena (16:30-18:30), 3-7 urteko haurrentzako lantegia prestatuko dute eta otsailaren 24an, barikua (18:30-20:00), 8-12 urte bitarteko umeen txanda izango da.

**TXAKURREN GOROTZAK
BATZEKO KANPAINA
MARTXAN DAGO**

Txakurren gorotzak batzearen aldeko kanpaina ipini du martxan Berangoko udalak: txakur bat edukitzea erantzukizuna edo ardura delako, txakurra zaintzeaz gainera auzokideenganako errespetua ezinbestekoa da-eta. Herrian "pipican" bat badago eta beste 10 "sanecan" (txakur gorotzak botatzeko zakarrontziak) ipini dituzte, gainera, kakak batzeko 8.000 poltsa ere doan banatuko dituzte. Banatuko dituzten berripaperetan azalduko dute zakarrontziok non dauden. Gainerakoan, boltsak kultur etxeetan, udaletxean, eta Berango albaritaritza klinikan eskura daitezke.



Liburutegiko fondoa

katalogatzeko 45.000 euro bideratu ditu Udalak



Gutxi gorabehera 6.000 liburu daude Berangoko udal liburutegian

Berangoko udalak udal liburutegiko funtsa aztertu eta katalogatu berri du. Egitako horretan 45.000 euro inberbitu ditu eta gutxi gorabehera 6.000 liburu daudela ondorioztatu dute aztertzailerek, ia berangoztar bakoitzeko bat.

Eusko Jaurilaritzaren liburutegien sareko kide da dagoeneko Berangoko udal liburutegia eta horren harira egin dute oraintsu katalogazioa.

Sare horretako kide izateak hainbat onura eskaintzen ditu, barbarako partaide diren liburutegien arteko maileguak egitea ahalbidetzen du. Hau da, liburutegi batean ez dagoen liburu bat sare barruko beste

liburutegi batean egon daiteke. Liburu hori non dagoen jakin eta lan hori eskuratzeko aukera dauka eskaria egiten duen irakurleak ekimen horren bitartez.

Bestalde, liburutegi sare horretan sartzeak aldaketak ere eragin ditu, besteak beste, erabiltzaile berangoztarrek liburutegiko agiria berriztu egin behar dutela. Horretarako, udal liburutegira hurbiltzea besterik ez da egin behar eta txartela berriztatzea dohakoa da. Esan barik doa, liburutegia Berangoeta kultur etxearen eraikinean dagoela. Txartel berria egiteko aurkeztu behar direnen edota ekimenaren berri izateko hurrengo zenbakira deitu: 94 668 21 43. m

Mikel Urbina > ikazduna

"Indonesiako koko-oskolaz egindako ikatza banatzen dugu, %100ean da ekologikoa"



Igeltsera poligonoan (Urduliz) dauka ikaztegia Urbinak. Informazio gehiago: www.ecobrasa.com

Tasio (Montxo Armendariz, 1984) filmako ikazkinean jarduna aspaldi galdu zen, ikatzak ere beste egiteko batzuetara egokitu behar izan du, erabilera eta bide berriak jorratu ditu, baina jarraitzen du berotzen. Mikel Urbina sopoloztarrak ikaztegia paratu du Urdulizen, "ikatz ekologikoa banatzen dut Euskal Herri osoan eta Kantabrian, ostalarien (sagardotegi, erretegi, jatetxe...) eta partikularren artean". Ecobrasa enpresa katalanaren azpiegiturako banaketa esparruan dago sartuta Urbina; izan ere, haiek garatu zuten Indonesiako koko-oskolaz egiten den ikatz ekologikoa.

Ikatz mota honek ohikoagaz (adb. arte-agaz egiten dena edo begetala) alderatuta onura eta abantaila handiak dituela azaldu du sopoloztarrak: "Batzuk azaltzearen: ez du sugarrik eragiten okela zorrotadaka bada ere, horrek sute-arriskua asko gutxitzen du eta produktua ere hobeto egiten da; ez du ia errausik uzten, ezta gas toxikorik sortzen ere; 2 ordu eta erdi irauten du indartsu berotzen; egiteko berdinena ohiko ikatzaren herena erabiltzeagaz nahiko da (ekologikoak kaloria

gehiago dauzkalako, 7.000 inguru, ohikoak 3.000 edo)". Osterantzean, desabantailen artean itxura aipatu du Urbinak: "pastilla forma dauka, horregatik merkaturako izan dituzten beste ikatz edo erregai txarrak dakarzkie gogon, eta basienan defentsa-jarrian egoten dira; ikatz pilak, tontorrik ikustena ohituta daude eta gurea geruza nahiko mehea da, baina emaitza ikustean konforme gelditzen dira. Ostera, ohikoa baino karuagoa

"Ez du sugarrik, ez errausik, ez gas toxikorik sortzen, eta luze dirau indartsu berotzen"

da (prezio ia bikoitza dauka, 3kg-ko kutxa batek 6 euro) baina kontuan hartu herena bakarrik erabiltzen dela erreketak bakoitzean, orduan ezta hain garestia".

Beste produktu batzuk ere saltzen ditu Urbinak: pizgailu arin bat, eta supizteko pastilla ekologiko batzuk koko-ileagaz egindakoak, usainbakoak. Sopelan (Garden Center) eta Urdulizko biltegian daude salgai eta laster Algortan ere bai. m

Harremanetarako: 94 676 51 50



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



URDULIZ

Telefono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

cianoplan Reprografía
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Karteak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- ermarkaketak •



HAUR LUDOTEKA

Gorizeko kultur etxeak 5 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ludoteka antolatu du Aste Santua arte. Martitzen eta bariku guztietan egongo da zabalik 17:30etik 19:00etara, erabilera anitzeko aretoan. Gainera, otsailaren 27 eta 28an, inauteriak direla-eta, ordutegia 11:30etik 13:00etara zabalduko da. Antolatutako jardueren artean, aipatu besteak beste, makillaje, pintura edota usadiozko jokuen tailerrak.

BIRIBILGUNE BERRIA GORLIZEN

Gorlizko udalak biribilgune berri bat eraikiko du lau hilabeteren buruan. Helburua, Armintzarako bidean dagoen Gorlizko irteera, Tribiñu, Adaiatzpi eta Orbeta kaleekin batzea da, hiriko zirkulazioa ahal den heinean arintzeko. Lan hau aurrera eramateko, Udalak 772.242,71 eurotako inbertsioa egin beharko duela aurreikusi du. Ekimena azken urte hauetan herriak ezagutu duen trafikoa areagotzea dela-eta egingo da.

IRTEERA ZESTOAKO BASERRRI ESKOLARA

Plentziako kultur etxeak Sastarraingo Baserri Eskolara (Zestoa) irteera bat antolatu du martxoaren 31tik apirilaren 2ra arte. 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat dago zuzendua eta prezioa 70 eurokoa da. Izen ematea Goñi Portalean otsailaren 20ra arte zabalik dago. Helburua, haurrek naturarekin daukaten harremana sustatzea da.

PLENTZIA

Aurrera Kasinoa eta Bahia Hotela alkarregaz



Hotel Bahia inauguratu zuteneko irudia, otsailaren 2an

1892-93an eraikitako Aurrera Kasinoaren eraikinean hotel batek zabaldu zituen ateak otsailaren 2an. Plentziako Hotel Bahia dauka deitura eta horrek ahalbidetu du egoera larrian zegoen eraikin historikoaren zaharberritzea; sustatzaileek, jabeek eta udalak adostutako akordioaren ondorioz. Aurrera elkarteok eraiki zuten orain dela ehun urte baino gehigo etxea (50.000 pezeta ordainduta), kasinoa eta aisialdirako txokoa izateko helburuagaz. Oraingoak garaiko eraikuntzak zeukan aurpe-

giaren itxura mantentzen du gutxi gorabehera, baina barrutik guztiz berriztatuta dagoela azaldu digu hoteleko zuzendari Borja Sanchezek. Hiru pisutan banatzen da: lehenengo solairuan Aurrera elkarteko egoitza egongo da, eta behean harrera, taberna eta jatetxea. Bigarren 9 gela paratu dituzte, goikoan beste bat (elbarrituentzat egokitua) eta 4 apartamentu gehiago. Oraindik eskuratu ez badute ere "3 izar izateko" prest daudela azaldu du zuzendariak. m

Ots.19 - Mar. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Pincel kolektiboaren olioak eta akuarelak.** Algortako kultur etxea. Otsailak 20-martxoak 4.

LEIOA

► **Vicente Ferrer Fundazioa.** Egin ezazu guztia gizatiarrago. Kultur Leioa. Otsailak 27-martxoak 26.

ERANDIO

► **María Jose Royelaren "Un tránsito del realismo" pintura lanak.** Udaletxeko erakusketa gela. Otsailaren 28ra arte.

BERANGO

► **Argazkiak.** Erakusketa Aretoa. UK Aldizkariaren eskutik, skateari buruzko argazkiak. Otsailaren 26ra arte.

PLENTZIA

► **Gorane Oleagaren olio lanak.** Goñi Portal Kulturala. Martxoak 1-15.

ZINEMA

GETXO

► **Como una imagen.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Otsailak 22, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.
► **Exils.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Otsailak 24, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.
► **Las crónicas de Narnia.** Haur Zinea. Getxo Antzokia. Otsailak 26, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.

LEIOA

► **El hundimiento.** Perseo Zineforuma: Europako zine garaikidea zikloaren barruan. Kultur Leioa. Otsailak 26, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.



Maider Bilbaoren lan bat

► Erakusketak

Maider Bilbao eta Bosteko'05

Otsailaren 28ra arte bi erakusketa ezberdin ikusi ahal izango dira eskualdeko bi herritan. Batetik, Maider Bilbaok, bere argazki-bildumaren erakustaldia egingo du Plentziako Goñi Portal Kulturalan. Bestetik, Erromoko erakustaretoan, Bosteko'05 erakusketaren zortzigarren edizioak gaurkotasun handiko hiru sortzaile elkartu ditu: Mikel Diez Alaba eta Carmelo Camacho margolariak eta Iñaki Olazabal eskultorearekin. Ordutegia, astelehenetik barikua 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuan 11:00etatik 13:00etara. Dohainik.

• **Non:** Plentzia eta Erromo • **Noiz:** otsailak 28ra arte

Leioa. Otsailak 21, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Arkadia Perseo Zineforuma:** Europako zine garaikidea zikloaren barruan. Kultur Leioa. Otsailak 28, martitzena. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **King Kong.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Otsailak 20, 20:00. Sarrera: 4 euro.
► **Una vida por delante.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Otsailak 25, 19:00 eta 22:00; 26 eta 27, 20:00
► **Bibi la pequeña bruja.** Haur zinea. Kultur Leioa. Otsailak 26, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

PLENTZIA

► **Adivina quien.** Haur zinea. Goñi Portal Kulturala. Otsailak 25, zapatua. 18:00.
► **La pequeña Lola.** Haur zinea. Goñi Portal Kulturala. Otsailak 24, barikua. 22.15.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Les Diables Noirs.** Deabru Beltzak taldearen kaleko ikuskizuna.

Inauterietako jardueren barruan. Irailaren 23a Plaza. Otsailak 24, barikua. 22:00.

► **Rekolore.** Hortzmuga taldearen kaleko antzerkia. Inauterietako jardueren barruan. Altzagako oinezkoentzako gunea. Otsailak 24, barikua. 19:00.

► **Kuko, Truko eta Bolenwaider.** Adur Teatroa. Josu Murueta Kultur Gunea. Otsailak 28, martitzena. 12:30.

LEIOA

► **Ipuin erotikoen kontakizuna.** Kultur Leioa. Otsailak 22, eguaztena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Sexua kontuan hartuta.** Ipuin kontalariak. Kultur Leioa. Martxoak 1, eguaztena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

BESTEAK

GETXO

► **Abra saria.** Alaia Martin, Julio Soto, Beñat Vidal, Xumai Murua... bertsolariaren lehiaketa. Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Otsailak 25, zapatua. 19:00.

► Haur inauteriak.

Maskaratuen kalejira, musika, pailazoak, puzgarriak... Otsailak 24, barikua. Algorta, Andra Mari, Erromo eta Areeta, goizean zehar.

BARRIKA

► **Mozorro jaia.** Antzerkia, merendola, jolasak... Barrikako Udaletxea. Otsailak 27, astelehena. 17:00.

ERANDIO

► **Koadrilentzako mozzorro-lehiaketa.** 19:00etatik 21:00etara. Saria: 300 euro.

LEIOA

► **Este no es otro taller más de sexo.** Sexualitate tailerra. Martitzenetan. 18:00-20:00. Izena ematea: 5 euro. (matrikulagaz, bi sarrera dohainik ipuin kontalari saio batetarako).

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

OV S
28 NIVERSARI
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Gorrondatxe hondartza



Barrika



Sopela



Sopela



Plentzia



Urtarrileko edurra

Eskuetan darabilzun UK hau amaitu ezinean genbiltzan bulegoan urtarrilaren akabuko egun batean elurra mara-mara botatzen hasi zen bat-batean. Elurraren magiak erakarrita gure zereginak ahaztu eta leihora bildu ginen denok. "Gaur ez goaz ikastolara, plastikoaren gainean aldapan behera ibiliko gara...". Txikitako era horretako oroitzapen hunkigarriak zetozkigun guztioi gogora eta elkarri kontatu genizkion pozik. Egun hartan behar egin zuen bakarra gure argazkilaria izan zen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Sopela



Gorliz



Sopelako hondartza



Gorlizko hondartza



Ibilbidearen oinazeak

Aitor Galbarriartu

Ibilitako bideen aztarnak, oztopoen ondorioak, behaztopa egin osteko arrangurak, itsasoaren laztanak, dantzaldietako oroitzapenak, aldapetan gora “urrututako” zapata gogorrak, ibiliaren ibiliz zulatutako galtzerdiak... Oinetan bizitzaren oinazeak eta pozak. Horiek guztiak ez ahazteko nor hobe bizitza osoko bidelaguna baino?

[berbetan]

Beti ere, pertsona bat izaten da UK-ko atal honetako protagonista. Beraren bizipenak, egindakoak eta egitekoak, asmoak, pentsamenduak... zuenganatzeko helburua dauka Berbetan honek, eta oraingoan ere Jabi Lauzirikaren izena irakur dezakezue letra handitan, baina inoiz baino gehiago, talde bati egindakoa da elkarrizketa hau, pertsonari baino. Lauzirika durangarra da, eta urte askoan jardun du helduen euskara irakasle. Algortako Lauaxeta euskaltegian ere bai, elkarrizketa hasieran gogorarazi digunez. Baina hori atariko haizearen parekoa da oraingo honetan, Lauzirika Zenbat Garako kide izatea da-eta axola digun gauza bakarra. Izan ere, elkarre horrek erditutako Kafe Antzokiak hamargarren urtemuga ospatu zuen orain gitxi. Hango bategaz berba egin gura genuela-eta, Lauzirika izendatu zuten zeregin horretarako. Ez da aukeraketa txarra, hasiera-hasieratik egon da-eta Zenbat Gara proiektuan. Egizue kontu talde osoak berba egiten duela beraren ahotik.

Jabi Lauzirika

Hamarkada baten argiak eta itzalak

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Abenduan hamar urte bete zituen Kafe Antzokiak, baina zuen proiektua lehenagotik zetorren, ezta?

—Bai, Zenbat Gara sortu zeneko sasoi hartatik, Kafe Antzokia ireki baino lau-pabost urte lehenago. Edo are lehenago beharbada. Bilbon kokatu behar gara, 1985 urtean. Bazegoen talde bat, Algortatik gentozenak gainera; Lauaxeta euskaltegian ibilitakoak ginen. 1984an etorri ginen Bilbora eta Gabriel Aresti euskaltegian hasi ginen. Hemen euskalduntze eta alfabetatzean ibilitako beste jende batekin elkartu ginen, eta pixkana-pixkana talde bat gorpuztuz joan zen, gerora, 1990ean gutxi gorabehera, Zenbat Gara izenaz bere burua aurkezten hasi zena.

—Kafe Antzokia, berriz, 1995ean ireki. Hori da Zenbat Gararen proiektuaren zutabe nagusia?

—Zutabeetako bat bada. Ez dakit nagusia den, ezagunena bai. Nolabait, inflexio-puntua izan zen. Ez dut esango lehenago ezer ez zegoenik, ezta gutxiago ere.

Baina Kafe Antzokiak balio izan du proiektua ezagutarazteko, proiektuak dituen beste adar batzuk bultzatzeko. Zutabe nagusietako bat bada, beraz.

—Asmo batzuk zenituzten irekitzerakoan...

—Asmoa ez zen taberna hutsa egitea, hori askotan azpimarratu dugu. Ez dakit

“Euskaldunentzako topagunea nahi genuen Bilboko bihotz erdaldunean”

lortu izan dugun baina... Asmoa tabernarekin batera beste dimentsio kultural, zabal, anitz... aurrera ateratzea zen. Taberna ere beharrezkotzat genuen, elkartaren filosofia delako inoren menpeko ez izatea diru aldetik, edo ahalik eta menpekotasunik txikiena edukitzea behintzat. Dagozkigun diru-laguntzak biltzen ditugu, jakina, eskubide guztia daukagulako, baina horretaz aparte autonomoak izan nahi dugu, inoiz dena popatik hartzera joanez gero, subentzioa ukatuz gero...

Dirua sortzeko bitartekoa da taberna, beraz. Horretaz aparte bilgunea da, eta aukera ematen digu jende aurrean azaltzeko. Baita jendea erakartzeko. Arrain-degi batek baino gehiago, seguru.

—Zuen web orrian diozuenez, garai batean ikusi zenuten Bilbon euskaldun asko zegoela, baina oso sakabanatuta,

eta haiei topagunea eskaintzeko ere zabaldu zela Kafe Antzokia...

—Bai, besteak beste. Bilbora etorrita, belarriak zabalduz gero, harremanak gauzatuz gero, konturatu egiten zara euskaldunak badaudela. Eta lehen ere hala zen. Baina jende asko beldurtuta zegoen, erdi ezkutuan, edo beldurtuta egon barik ere ez zuten aukerarik euskaraz hitz egiteko, ez zutelako elkar ezagutzen. Traba eta oztupo ugari zegoen. Kafe Antzokia marmurtzen hasi ginenean, horrek bizirik



zirauen oraindik. Estatistiken arabera, euskaldun gehien bizi den Euskal Herriko hiria da Bilbo. 55.000 lagun, eta horiei inoiz euskararekin harremanen bat izan duten 50.000 gehitu behar zaizkio. Kopuru handiak dira, baina sakabanatuta zegoen dena, noizean behineko ekimenen bat gorabehera. Kafe Antzokiaren asmoe-tako bat zen, beraz, Bilboko bihotzean, printzipioz eta soziologikoki euskararen kontrako jarrera zuen gune batean -espainolismoaren babesgunea, alegia-, eskaldunentzako topagune bat sortzea. Euskara periferiatik erdigunera ekarri nahi genuen, erakutsi nahi genuelako posible zela bizitzaren funtzio ugari euskaraz garatzea Bilbon bertan, eta euskara ez erabiltzea euskaltegiko lau horma artean bakarrik.

—Eta lortu egin da?

—Halako egitasmoak ez dira hamar urtean lortzen. Ahaleginak egiten dira, bideratu egiten da... Etengabeko borroka da. Eta abiapuntu batzuk lortu dira, jarritako tarteko helburu batzuk. Helburu orokor-rrak ez, urrun gaude horretatik.

—Argi dago Kafe Antzokia ikur bihurtu dela Bilboko euskaldunentzat. Euskal Herri osokoentzat ere bai, gaineratuko nuke...

—Bai, nik uste harrokeriarik gabe esan dezakegula baietz. Edozein eguerdiz zotozela bazkaltzera, zenbat euskaldun topatzen dituzun bertan! Bizkaiko herri askotakoak, eta baita Bizkaitik kanpokoak ere. Horrez gain, lagun batek esaten zidan... Bera Bilbotik kanpokoak da, eta orain zortzi-hamar urte etorri zen hona bizitzen. Kosta egiten zaio Bilbo Kafe Antzokirik gabe imajinatzea, metrorik gabe imajinatzea kostatzen zaion bezala. Badago paisajeari atxikia.

—Gainera, erdaldun askoren erreferentzia ere bada, hizkuntza aldetik ez bada, bai behinik behin beste alde batzuetatik: musika, giroa, kultura...

—Ez dugu ahaztu behar gune erdaldun batean gaudela, eta erdaldunak ere etorri

egiten direla. Nik, hasieran, ika-mika gehiago egongo zela pentsatu nuen, baina ez da hala izan, erdaldun asko eta asko errespetuz etortzen dira, euskaraz dakizkiten lau hitzak erabiliz gainera. Helburuetako bat zen, hain justu, erdaldunak euskararen aldeko jarretara erakartzea, euskararen mundua errespetuz eta atsegin- ez ikus dezaten.

—Gauzak egiteko estilo bat garatu duzue, filosofia bat, bai lanerako, bai kultur produkzioarako... Hau da, gauzak ez

“Zerbait aurreratu dugu, baina urrun gaude gure helburu orokorrek lortzetik”

dira berez onak euskarazkoak izate hutsegatik, kalitatea ere behar da...

—Bai, zuzen zaude. Hori ere erronka izan da guretzat, ez dakit lortu den ala ez. Gauza askotan baietz uste dut, edo ahalegina egin da behintzat kalitatearen alde. Horrek kontraesan moduko batzuk sortzen ditu, baina uste dut horientatik ere aurrera egiten dugula. Kulturari dagokionez, indarrean dauden sistema inperialista horiek jan egin digute hitza, kultura hitza. Lasai-lasai hitz egiten dute kulturaz, askatasunaz eta demokraziaz. Eta beraiek dira horien defendatzaileak. Espainiako eta Frantziako telebistak dira kultur bultzatzaile nagusiak. Horrekin ere jokatu nahi izan genuen, ez bakarrik Eus-

“Belfasten ere gogoia daukate Kafe Antzokia bezalako zerbait egiteko”

kal Herri barruari begira, baizik eta beste herrialdeetatik talde eta pertsona jakinak ekarriz. Nortasuna zeukaten gauzak, legezkoak. Esan nahi dut, argi eta arbi, Julio Igesiasen, Lola Floresen edo Isabel Pantojaren estiloko batek ez duela sekula santan lekurik izango Kafe Antzokian. Duintasunez ari direnekin jardun behar dugu.

—Ondarroan zabaldu zenuten Kafe Antzokiaren ahizpa txikia, eta eredu bestela ere zabalduz joan da. Durangokoa, esate baterako, ez da zeuena, baina eredu hemengoa da argi eta garbi. Atzerrian ere eskatu izan ei dizute laguntza zuen eredutik abiatuta aretoak sortzeko...

—Bai, eta poztekoa dela uste dut. Bilbon halako “marka” sortu dugu, antza denez. Bilbokoarekin batera etorri zen, geroago, Ondarroakoa, Zenbat Gararen ekimenez

hura ere. Herri bien arteko desberdintasunak kontuan hartu ziren —Ondarroa berez da euskalduna, Bilbo ez—, eta egia esan Ondarroakoak ez du Bilbokoaren emaitzarik izan, faktore asko direla medio. Horretaz aparte, gurekin harremanen jarritako jendearen ekimenak daude, Durangokoa konparazio baterako. Gu horren aldekoak gara, egia esan. Hau da, norbaitek gure bidea erabili nahi badu, prest gaude laguntzeko; hori bai, lekuan lekukoek egin behar dute, ezin gaitezke Bilbotik ez dakit nora joan salbatzaile gisa. Ekimena bertako jendearena izan behar da, eta gu laguntzeko prest gaude, geure esperientziaren berri emanez. Durangokoarekin batera, Euskal Herriko

beste leku batzuetan egitasmo desberdinak egon ziren, eta aztertu egin genituen. Momentuz denak geratu dira bertan behera, arrazoi diferenteengatik. Gasteiz, Baiona, Iruñerria... Hor geratu dira, ez ahaztuta, baina bai bazterrean, egoerak uzten duenean berriz heltzeko zain. Beste herrialde batzuetatik ere etorri izan dira. Hala, harremanak eduki ditugu nola

Kataluniakoa jendarekin, hala Galiziakoekin eta Irlandakoekin ere. Belfasten eta Ferrolen gogoia zeukaten honelako zerbait egiteko, hangora egokituta noski. Ongi etorria izan dadila, gureak balio badie... Eta momentu honetan badira beste egitasmo bi EuskalHerrian, eta horiek bai, seguraski, epe ertainean gauzatuko dira: Bermeo eta Tolosa.

—Getxon ere zerbait egin zitekeen zurrumurrua ibili zen aldi batez...

—Ez daukat ezer gogoan, egia esan.

—Dena dela, Getxoko Kafe Antzokia ez legoke hemengotik hurbilegi? Besteak beste, Getxoko gau giroarenak orain urte batzuk egin zuen, gehienek Bilborako bidea ederto ikasita non-bait...

—Hurbilegi? Ez dakit. Getxokoa ez, baina Portugaletekoak bai entzun izan

dugu, komunikabide baten bitartez jakin genuen. Nik zalantzak dauzkat Getxo hurbilegi dagoen ala ez, ondo aztertu beharko litzateke. Getxon ez da behar, agian, Bilboko bezain Kafe Antzoki handia, hiriko premiei egokitu-tako bat baizik. Horrek balioko balu Getxotik hona datozenak bertan garatze-ko, hori ere komenigarria litzateke. Hurbiltasuna, beraz, Kafe Antzoki bat zabaltzeko arrazoia izango litzateke, eta ez alderantziz.

—Entzungo zenuten kritika inoiz: Kafe Antzokian, asteburu gauetako paranda giroa ez da beste edozein areto handienaren antzekoegia?

—Bai, entzun entzuten da. Egia esan, aspaldiko partez ez nabil horrelako gauetan, baina lagunek eta ibiltzen direnek sarritan esaten dute: musika ozene-

gi dagoela eta abar... Filosofia da taberna jende arteko harremanak bultzatzeko izatea, baina ezin berbarik egin aldama-nekoarekin, belarria janda oihuka hasiz gero ez bada... Alde horretatik, agian, aldameneko tabernan egon daitekeen giroaren antzekoa edukiko genuke geuk ere. Bestalde, egia da giroa norberak ezar dezakeela. Bideratzen ahalgintzen gara, baina kanpotik datorrenak ere baldintzatu egiten zaitu. Uste dut, dena den, oraindik ere diferentziak badaudela. Batetik euskal musikari ematen zaion garrantzia: larunbat gauetan %40 inguru da, kopuru ikaragarri handia. Bestetik, musika motak ere badu bere garrantzia. Hemen egile duinen musika sustatzen da, bide komertzial hutsetatik kanpo dagoena ipintzeko ahalegina egiten da. Beti lortzen den? Seguru ezetz. m

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Urbe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



Agate Deuna 2006

Gabonak edota sanjuanak bezala, Agate Deuna kristautasunak bereganatutako beste jai paganoa ei zen. Udaberriaren atarian, kantuz eta makilak kolpatuz, lurra neguko bere lozorrotik esnatzea zen jai zahar honen asmoa antzinean. Kontua da ohitura zahar hau gaur egun arte iraun duela eta gure eskualdean lagun talde ugari ateratzen da kalera Agate Deuna egunaren bezperan bazterrak kopla zaharrekin eta mailu hotsekin betetzeko. Hauexek dituzue aurten ateratako batzuk.

Argazkiak: **Asier Mentxaka, Pedro Urresti, Jose Mari Martinez, Juan Gomez**



JATORRAK



UDONDOKOAK



LAGUN ARTEA



AGEDAN LAGUNAK



PEÑATXURI



SOPELAKO UDAL EUSKALTEGIA



ONDARRETA ABESBATZA



SUHILTZAILEAK



IBAR ABESBATZA



ALTZAGA IKASTOLA



ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA (ALBE)



ITXAS-ARGIA



TANGORAKO SOINUTARRAK



GORFONDATXE



SOINU



BIOTZ-ALAI



ANDRA MARIKO NAGUSIAK



ITXARTU



SAN NIKOLAS IKASTOLA



ESKUZ-ESKU



ANTOLAKETA ETA ZERBITZUAK S.L.

15 urte zuekin

Zorionak eta urte berri on bezero eta lagun guztiei!

Errotatxu poligonoa, B blokea, nabe 11 - 48993 GETXO
Tel.: 94 491 17 44 - Faxe: 94 491 0851
E-mail: az@antolaketa.com - www. antolaketa.com



Euskorreo

SERVICIO POSTAL VASCO / EUSKAL POSTA ZERBITZUA

Zuen esku jartzen dugu:

HIRI BARRUKO KORRESPONDENTZIA BANAKETA

PROPAGANDA BANAKETA

HIRI BARRUKO ETA KANPOKO INPRIMAKI, MAILING, PUBLIZITATE ZUZENA
ETAB.EN BANAKETA

Paketeria, Garraio lokala, nazionala eta nazioartekoa

Sobreratzeak, Manipulatuak...

Inprenta eta Arte Grafikoak

Agiri eta gutunazalan personalizatzea

Kompetentziarik gabeko prezio-kalitate erlazioa. Informazio gehiago behar izanez gero, ez zalantzarik izan. Deitu!

GETXO • LEIOA • BERANGO • ERANDIO • BASAURI

Tel. / Fax: 94 480 31 12
www.euskorreo.com email: manusola@euskorreo.com

zineeskola

Oskar Fernandez

Planoen ezaugarriak (II)

Jarrai dezagun planoak arakatzeko. Aurreko alean ikusi genuen azken planoak Hiru laurdenetako izan zen. Beraz, Erdiko Planoarekin hasiko gara. Plano honetan ikusten dugun gizakiaren irudia gerriatik bururaino hartuta dago. Era honetan psikologikoki pertsonaiengana hurbiltzen gara eta zer egiten duten zein barruko sentimenduak nolakoak diren ere askoz hobeto ikusiko ditugu. Honen ostean Lehenengo Planoa dator. Orain Pertsonaien aurpegiak baino ez ditugu pantailan ikusiko. Plano honek pertsonaien aurpegi osoa eta bularraren zati bat hartzen du. Oraindino beste plano mota hurbilagoa badago, "Primerísimo Primer Plano" delakoa. Plano honen bidez hurbiltasun psikologikorik handiena lortzen da. Barruko sentimenduak adierazteko hau baino baliabide hoiberik ez dago. Beraz, planoak zenbat eta handiagoak direnean hainbat eta deskriptiboagoak dira; zenbat eta hurbilagoak, berriz, hainbat eta psikologikoagoak. Planoen bidez testu idatziek adierazten dutena irudien bidez film testu bilakatzen dira. Egindako planoen deskribapena ez da itxia ez bakarria, beste proposamen batzuk ere baitaude, baina hau, seguru aski, gehien erabiltzen dena eta ezagunetarikoa da. Aipatutako plano guztiak luzeagoak edo laburragoak izan daitezke, era honetan, enkoadraketa zehatzagoa izango da. Zinemako zuzendariak, logikoa denez, askatasun osoa dute nahi dituzten planoak erabiltzeko. Eta azaldu dugun planoen sailkapena eredu edo erreferentzia bezala hartuko dute. Gero gidoiaren arabera planoek neurri bat edo beste hartuko dute. 4

Goenagaren Zeru horiek

Bernardo Atxagaren liburuan oinarritutako *TV-movie*-a dagoeneko jendaurrean eman dute

Euskal literaturaren hiru gailur garaienetakoen lan bana pantailara bideratzea bururatu zitzaion Angel Amigori, eta ekoizteko asmoa TVE kateari aurkeztu zion. *Zeru horiek* (Bernardo Atxaga, 1995), *Bihotz bi* (Ramon Saizarbitoria, 1996) eta *Zorion Perfektua* (Anjel Lertxundi, 2002) dira pantailara eramateko aukeratutako liburuak, eta hiruretan lehenengoa jendaurrean aurkeztu dute dagoeneko, Miarrizteko FIPA ikus-entzuneke saioen nazioarteko jaialdian.

Aktore, antzerkigile, idazle, errealizadore eta gidoiari den Aizpea Goenagak (Donostia, 1959) hartu zuen Atxagaren nobelaren gidioa egokitzeko ardura, ostean, *TV-movie*-a zuzentzea ere hartu zuen bere kargu. Nagore Aranburuk antzeztu du pertsonaia nagusia (Irene) eta haren alboan erraz ezagutzen dira beste zenbait euskal aktore, berbarako: Joseba Apaolaza eta Loli Astoreka.

«Euskaraz emango dute, azpituak; katalaneraz eta gazteleraz itzulita gero»

Irene euskal preso ohia kartzelatik irten eta ordutik egin beharreko bidaia islatzen du *Zeru Horiek*-ek: emakumearen barru alderako ibilaldia, Bartzelonatik Donostiara bidea (ez Bilbora Atxagak idatzi moduan)... baina



Nagore Aranburuk pertsonaia nagusia antzeztuko du

"istorio unibertuala" dela aldarrikatu du Goenagak. Bartzelonan filmatu dute zatirik handiena: autobusean eta Mataroko espetxe ohian. Ane Muñozen laguntza eduki du Goenagak muntaketarako eta Rupert Ordozikaren kantu bat ere barneratu du.

Donostiarrak zuzentzen duen lehenengo filma da, eta TVEk ekoizten duen (TV3 kateak eta Factorum ekoiztetxeak lagunduta) lehenengo *TV-movie*-a. Euskaraz sortutakoa euskaraz emango dute, hasieran azpituak, eta gero gaztelerara eta katalanera itzulita. m

Ez galdu > Vera Drake

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: martxoaren 3a, barikua • Ordua: 22:00 • Cinema Paradiso



Film on eta interesgarri honen atzean britainiar zuzendari oso ezagun bat topa dezakegu, Mike Leigh. Berak zuzendutako film batzuek oso ospe handia lortu dute: *Bizitza goxoa da* (1991), *Sekretuak eta gezurrak* (1996), *Dana edo ezer ere ez* (2001). Zuzendari hau Ken Loachekin batera britainiar zine sozialaren begirada garrantzitsuenetakoa da. 2004an egindako film honek istorio gogorra, sentibera, hunkigarria eta hurbila kontatzen digu. Gure begietatik pantailan drama sakon bat garatuko da, benetako gertaeran oinarriturik. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, 1950. urtean Britainia Handian, etxeko emakume bat, langile fina, bihotz handikoa, eskuzabala, ulerkorra, jende guztiarekin atsegina eta beti prest laguntza emateko musu truke, 1861. urteko legearen bidez gupidagabe zigortu zuten abortuak egiteagatik. Andre hori Vera Drake zen.

Metak agur eta...

Negu Gorrien altzoan ereindako haziak eman du azken fruitua merkatuaren negu beltzean



Argazkian, Fermin Muguruza eta Kontrabanda Algortako Portu Zaharrean jotzen

Orain dela 5 urte, Galindok *Ustelkeria* kantuararen aitzakiagaz bultzatutako auzia behinbetiko itxi zela ospatzeko Negu Gorriak taldeak agur kontzertua eskaini zuen. Orduan esan zuen agur taldeari lotutako Esan Ozenki diskoetxeak ere. Ostera, orduantxe jakin genuen haren lekukoa hartuko zuen jaioberriaren izena: Metak, Esan Ozenkiren bidea jorratzen jarraituko zuen diskoetxea eta zigilua.

Pasa berri den abenduan, Negu Gorriak ibilaldia batzen duen *Negu Gorriak 1990-2001* DVDa plazaratu zuen Metakek. Azkena. Ia 5 urteko ibilbidearen ostean, errepidean 73 bide-

seinale argitsu utzita, Metakek ez du aurrera egiteko beste bidegurutzerik zeharkatuko eta disko-gintzako larregizko bidesariak ordaintzeko gaitasunik ez duela aitortu du. Alabaina, "egindako lanarekin pozik goaz... egindako apustuak ez zaizkigu damutzen, argitanatutako diskoak bere momentuan argitanatu nahi genituenak ziren... eskerrik asko denoi...". halaxe zioen Metakek agurrean. Ibilutako galtzadan ipinitako argiez harro daudenez, ez dago furgonetaren argiak lausotuko dituen euririk. Hala ere, laino beltzak estali du zaleen zerua. Gainontzekoek erdipurdika edo merkaturia irutsiz egingo al dute aurrera? m

diskoak

Keys to the World
Richard Ashcroft
Parlophone




The Verve taldeko abeslari ohiak hainbat abesti berri idatzi ditu azken urte hauetan zehar eta horietatik 10 aukeratu ditu *Keys to the World*, bere azken lanerako. Honakoa dugu Ashcroft-en bakar-kako hirugarren diskoa, *Alone With Everybody* (2000) eta *Human Conditions* lanen ondoren. Grabaketa bi egunetan egin zen Londresen eta hamaika gai jorratzen ditu, hala nola, amodioa, erlijioa, heriotza, mundua, etab.

The life pursuit
Belle and Sebastian
Roughtrade Records



Pop abesti gazi-gozoak egiten dituen musika talde hau 1996an sortu zen Eskozian. *The life pursuit* izena dauka kaleratu berri duen azken lana, taldearen bostgarrena. 2005eko urtarrilean, The List aldizkari eskoziarrak, musika talde eskoziar onena bezala aukeratu zuen Belle and Sebastian, Simple Minds edo eta Frand Ferninand musikari ezagunen aurretik.

G. Mendibil 30 urte
Gontzal Mendibil
Keinu



30 urte kantuan bete dituen Gontzal Mendibilek disko hirukoitza kaleratu berri du. Hamaika gauza ezagutu eta sortu ditu Mendibilek Xeberriekin batera, *Zaurietatik dario* lehen diskoa argitaratu zuenetik. Ibilbide honen bilduma da hain zuzen ere bere azken lan hau. Bertan, kanta esan-guratsuez gain, horren ezagunak ez direnak ere aurkitzen dira bere azken konposizioekin batera, *Gorbeia* haizea izenekoa.

lehiaketa >

Pop-rock eta metala



Leioako udalak VI. Leioa PopRock eta Metal Lehiaketa martxan ipini du aurten ere. Hilaren 24a baino lehenago gutxienez 5 kantuz

osaturako CDA bidali beharko dute parte hartu gura duten taldeek, hurrengo helbidera: Kultur Leioa, Aterpe Gazte Bulegoa, Jose Ramon Aketxe kalea, 11-1.a, 48940 (Leioa). Lehiaketa bi zatitan banatzen da: alde batetik pop-rock alorra (rock and roll, power pop, garge, psicodelia, ska, reggae, punk rock, stoner rock, noise, pop, r&B, tecno pop, hip hop, rap...) eta bestetik metal saila (rock gogorra, heavy metal, thrash, speed metal, death, doom, metal gotikoa, industrial, A.O.R. hardcore, rap metalikoa...). Finala maiatzaren 12an eta 13an egingo da eta sail bakoitzeko sari nagusia 1.800 eurokoa da (beste sari batzuk ere emango dituzte).

informazio gehiago: www.kulturleioa.com

Hotsak >

azkenengo berriak

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak laster bi lan berri plazaratzeko asmoa daukala aurreratu du. Hil honetan ikusiko ei du argia Keu (Etsaiak, Fjord...) gitarrojale ondarrutarrak rockaren erritmoratu osatutako 9 kantuko UEK diskoak. Mikel Arakistainegaz (baxua) eta Jon Gurrutxagagaz (bateria) sortu du taldea oraingorain Keuk, eta bere azken lan instrumentaletatik distantzia hartu du. Bestalde, Sixty Sexers Berako taldearen lehenengo lan luzea ere bidean da, punk eta hardrock doinuak bilduko dituen diskoa.

etorri
eta
ikusii!!

LORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

uk

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

Quenearen 99 moduak

Euskaraz ondu du Xabier Olarrak Raymond Quenearen *Exercise de style* liburua

Estilo-ariketak (Igela, 2005), Raymond Queneau idazle frantsesaren lan adierazgarrienetakoa euskaratu du Xabier Olarra (Tolosa, 1953) itzultzaileak. Egunero gertara arrunt eta hutsal bat 99 modutara idatzi zuen Queneau, testualdaera, komunikazio erregistro... oro har idazketako erabilera eta baliabide desberdinak. Hau da, istorio bera ia ehun era diferentetan kontatu zuen egile frantsesak. Istorioak garrantzia galtzen du kontatzeko eraren mesedetan, forma mamiaren gainetik. *"Parodia da liburua"*

**"Istorio berbera
99 erataria idatzia,
kontatua, moldatuta..."**

nolakoa den adierazteko hitz egokiena, experimentalismoa ere erabili izan da; baina batez ere jolas-literatura da, hizkuntzak eta hizketak ematen dituzten aukerekin jostaketan aritzen da", azaldu du Olarrak. Itzulpena Zaldi Eroaren irudiak atondu dute eta elebiduna da: ja-torrizko testua ere barneratzen du.

Raymond Queneauk François le Lionnaisgaz batera OuLiPo "lantegia", "laboratorioa", taldea sortu zuen 1960-an, Georges Perec ere izan zen bertako



Raymond Queneau

kide. Taldearen ezaugarri batzuk aipatzearen esperientzia eta muga azal daitezke. Egileen esku ipintzeko forma eta egitura berriak bilatzen zituzten, aurrekoek erabilitakoetatik edanez, baina emari berria sortuz. Era berean, egile bakoitzak mugak edo trabak jarri eta horietara derrigortzen du bere burua, horiek gainditzeko gai dela frogatzeko. Queneauk istorio, gertaera bakarra, berbera, dauka muga eta 99 eskaini zituen. Hala, OuLiPokide Perecek frantsesez hain erabilia den e bokala idatzi barik 300 orrialdetako nobela paregabea idatzi zuen.

Euskaratuta dagoen Quenearen bigarren lana da hau, *Zazie metroan* nobela da bestea (Joxan Elozegi, Ibaizabal, 1996). m

liburuak



Merkatua eta globalizazioa
Jose Luis Sampedro
Elhuyar

Kapitalismoaren gezurrak salatzea du helburu liburuak, idazleak dioenez, eta irakurle ororentzako dago idatzia. Berlingo Harresia eraitsi eta Sobiet Batasuna desegin ondoren munduko ekonomian izan diren aldaketak deskribatzen ditu Sampedrok, euskaratu berri duten liburu honetan.



Lekuak
Bernardo Atxaga
Pamiela

Bere izenak adierazten duen bezala, lekuez hitz egiten du liburuak. Egilearen jaioterria ez ezik, Paris, Maroko, eta beste hainbat azaltzen dira bere orrialdeetan. Irakurleak era askotako testuak aurkituko ditu ataletan; gogoetak aurkituko ditu, ipuinak, bidaia-kronikak, komentario umoretsuak edota dramatikokoak.

[kirola]

Garazi Sanchez > surflaria

"Stephanie Gilmore 18 urteko australiarrazagaz lehiatzea gustatuko litzaidake; lehiatu eta zergatik ez, irabazi"



Martxoaren 15era arte egongo da Australian 14 urteko Algortako surflaria

Bizitza erdia daroa taula baten gainean. 7 urtegeaz hasi zen surfean eta 7 urte dira euskal olatuak mendean hartzen dituela. Garazi Sanchez da etorkizun hurbil batean uhinen bozgoragailuetatik askotan eta ozen entzungo dugun algortarraren izena. Bere gatzetasunean dagoeneko hainbat txapel bururatu ditu eta beldur barik esan daiteke bere adineko surflariak, eta gainontzekoek ere, zeharka begiratzen diotela, begiradarik kendu barik.

Lehenengoz bodyboardeko ohola hartu zuen, baina anaiari begira, oinak eta hankak urduritzen hasi zitzaizkion, eta laster ipini zen zutunik... eta surf taula ipini zuen hankapean. *"Gorka Yarrantuz hasi nintzen, Barinatxe hondartzen, baina orduan oraindik ez zegoen eskolarik, ez gaurkoak bezain prestatuak edo garatuak behintzat... Orain Patu entrenatzaile pertsonalagaz dihardut",* azaldu zuen Sanchezek.

Australiako olatuakaz borrokan, uhinekiko lehiari garaile agian, ibiliko da une honetan irribarrea ezpainetan Sanchez. 14. urtemugak ekarri dion oparia da Australiarako bidaia, Getxoko uda-

lak eman dion 3.600 euroko dirulaguntzagaz gauzatu duena. *"Babesleek emakumezkoen kasuan hementxo gauzetaniko bakarrik ematen dute normalean laguntza, gizonetzkoek kanpora joaten ere laguntzen diete; gainera, nire babesleak egoitza Frantziara dauka eta aurtun frantziar andrazko surflari bati eman diote... Baina oso pozik nago zelan edo halan nire ametsa betetzea lortu dudalako eta eskernak eman gura dizkiet lagundu didaten guztiei",* aitortu zuen algortarrak. Zelan ez, Kelly Slater dauka onenatzen, eta Stephanie Gilmore 18 urteko australiarrazagaz lehiatzea gustatuko litzaioke, *"lehiatu eta zergatik ez, irabazi"*. Hala ere, ikastera joan da Australiara etorkizunean Munduko txapeldu izateko trebatzera. m

Lorpen batzuk

- **Europako pro junior:** 4. postua, Ericeira, 2005
- **Queen of the Groms sub-15,** 2. postua, Frantzia, 2005
- **Nesken Surf Biltzarra** 2. postua, Zarautz, 2005
- **Ikasbiki zirkuitua** 1.go postua, 2005
- **Euskal surf zirkuitua, kimuak, mixtoa** 1.go postua, 2002

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KON-
SERVITEC

Lacofris S.L.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
• 3 HILABETERO GARAN-
TIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBIT-
& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430
HIRURAK

Sarrikobaso 15

Joxe Mari Agirretxe eta Aiora Zulaika > Pirritx eta Porrotx

“Urteen poderioz konturatu gara esaten dugunak eragina duela”



Aiora Zulaika eta Joxe Mari Agirretxe

Ia hamarkada bi dira Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldea jaio zela Lasarte-Orian. Ordudanik, Joxe Mari Agirretxek (Porrotx) baino ez dirau. Aiora Zulaikak zortzi urte daroaz Pirritxena egiten, eta Agustín Mujikak, berriz, orain urte bi utzi zion Takolo izateari, hirukotea bikote bihurtuz. Lehen bezain arrakastatsu segitzen dute ordea, zezeil hasieran Getxon ikusi ahal izan genuenez. Bide batez, geugaz berba egin zuten.

—Itxura denez, pailazogintzak bizitzeko adina emoten du, batzuei behinik behin...

—Bai, baina lan egin behar da gogotik, el Guk hamahiru urte daramatzagu profesional, eta gaur egun bost lagun bizi gara honetaz.

—Hala ere, pailazo talde asko dago, baina zuek bezalako arrakastagaz ia bat ere ez. Zelan lortzen da hori?

—Gure formula haurrei begira lan egitea da batez ere; haien buruan sartzea da gakoa. Beti esaten dugu Euskal Herri alai, euskal-

dun eta bihurria nahi dugula, eta haurrak ere alai, euskaldun eta bihurriak. Geu ere halakoxeak gara. Horri gehitu maitasun dosi batzuk, eta hor duzu. Ez da formula magikoa.

—“Izarrak” zarete orain, zelanbait esatearren. Igartzen duzue ospearen zama?

—Urteen poderioz konturatu gara umeak eta gurasoak-guri begira daudela, esaten dugunak eragina duela. Hasieran edozein astakeria egiten genuen, arrautza bota, hau eta beste... Ondo dago, baina orain saiatzen gara hori zaintzen. Umorea bai, baina nola?

—Umeentzako ereduak sortu, alegia...

—Horixe. Kezka sortzen da, eta azkenean taldeak bilakaera izan du. Nabari da kezka handiagoa dugula musikagatik, letrengatik...

—Gizarte gaiak lantzen dituzue. Etorkinak, familia eredu alternatiboak, ijitoak...

—Azken batean, umeak ere gizarte honetan bizi dira, eta gizartean baloreak daude, arazok... Orduan, zergatik ez landu modu alaian, elkartasunezko mezuak emanez? Eta gurasoengandik iritzi onak jasotzen ditugu normalean. Orain bost urte ere, jazarpen hurra eduki genuenean...

«Oraindik boikota jasaten dugu, bai guk, bai beste talde batzuek»

—Politika zela eta?

—Bai. Kazetari guztiak etorri ziren gure emanaldiak ikustera, ea non zegoen gure pekatua, eta gero *El Mundoko* artikulua irakurri eta koreografia, kolorea eta umorea aipatzen zituzten. Gu harrapatzea etorri ziren eduki aldetik, baina ezin zuten noski.

—Bost urte eta gero, oraindik igartzen dituzue ondorioak?

—Hara, ezin dugu Donostiako lokal publikoetan emanaldirik eskaini, ezta Iruñean edo Gasteizen ere. Talde zein pertsona mailan gaudituta dugu, baina oraindik boikota jasaten dugu, bai guk, bai beste talde batzuek.

—Nekagarria da zuen lanbidea? Oñean nahiz txarrean beti alai agertu behar...

—Oso esker onekoa da, eta momentu txarretan daukagun mozorroak laguntzen digu. Nire ahizpak farmazian lan egiten du eta ondo ala gaizki egon, aurpegi ona erakutsi behar die bezeroei. Guk, berriz, txalo zaparrada artean bukatzen dugu lana, muxuak, maite zaitut... Ea nori esaten dioten hori lana bukatutakoan. m

Esakere > “Begi handiak euki gose baño”



Gose garanen yanari duzti da gitxi, dana da txiker, meloi bet keriza da gure begitera, eta ollasko eder bat, artaxori. Gose garanen agotik barik begitetik kabuten daku dana. Ase garanen osteria, tripe betetute eta handitute deku, eta sama estu. Ordun artagaro bat talo oso lez da, eta sardiñatxu bet, atune. Ordun ezteku hainbeste lekuri ez agoan, ez begiten. Sarri begiten kabuten daku gehiau tripen baiño.

Esakera hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urdulizeko berbak eta bizimodu" liburun topako doze.

Gure **berbakere** 71

ESAKERA ZAHAR BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Neguk eta hotzak zer esan eta zer pentsa nahie emoten doskue honetan sasoiatan: neguk luzetu ete direz, gero eta hotzago egiten ete dau? Egi da hotzak eta edurrek dekuzela lagun azkeneko urtetan, baia gure atxinekon esakera batzuri aditu ezkeron ikusten da neguko hotzan kontu ez dala gaur-gaurko. Hemen doaz, beste batzuten lez, R.M. Azkuek eta G. Garatek baturiko esakera batzuk, neguko hotza eta gogortasune gauza barri ezitrela erakusten daudenak.

- *Edurna, zuria dala, baltza da* (Azkuek Zeanurin batute). Hau da, edurren kolore argi da, baia iluntasune, gogortasune eta tristetasune dakar.
- *Leie, edurren geie* (Azkue, B).
- *Leia, zaharren akabagarria* (Azkue, Derio).
- *Norte haxeak leku gorderik ez, pobreak adiskiderik ez* (Azkue, Mundaka).
- *Edurra tellatuan, abarra basoan, taloak egiteko uruna auzoan* (Azkue, Zornotza). Etxe batzuen miseri erakusteko esakere.
- *Edurra tellatuan, zakua lepoan, ibilli beharko dogu aurtengo neguan* (Azkue, Olaeta). Lan egin behar negun aurrera urteteko.
- *Eguraldi ona bera da yake, bera da gona* (Azkue, B).
- *Ama Birjiña martiko, negua joan ta udia betiko* (Garate).
- *Bizkaiko negua garizuman* (Garate).
- *Goiz negu, goiz miseri* (Garate).
- *Negua, za(ha)rraren mazua* (Garate).
- *Osoak ez du negua jaten* (Garate).

Eta pasaten gabiltzezen hotzan, katarron eta gripen osten sikeran etor daitezela udebarri eta eguzki berotxuk, eta eurokaz ugaritsaune gauza on guztiten. Azkuek baturiko beste esakera batek diñon lez, edur-urte gari-urte, edo edurre dakarren urtek ekar dagiela danontzako ondasun ugari!

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345
Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Lebatza

saltsa berdean

Hauxe duzue euskal sukaldaritzaren bitxietako bat, plater izarra, kozinatzeko erraza eta denok egiten jakin behar duzuen.

Ipini sutan eta oliba oliotan berakatzu. Urreztatzen denean irinetik pasatutako lebatz xerrak gehitu. Buelta eta buelta egin eta gero perrexila, arda zuria eta irin apur bat gehitu. Ondo eragin zartagina saltsa loditu dadin. Nik arrain salda apur bat ere botatzen diot, edo esparragoen ura. Segi zartagina eragiten. Bost minutan edonor txoratzeko platera edukiko duzue. ^m

osagaiak

lebatza • oliba olio • perrexila • berakatzu • arda zuria • arrain salda



itsaso arana / jolastokikoa

Tenpranillo

mahats dotorea

Mahatsa, ardaoa: banatu ezinezko bikotea. Zer nolako mahatsa halako ardaoa. Ikasturte berri honetan, eta UKren zenbaki bakoitzean, mahats mota garrantzitsuenen gainean azalpenak ematen nabil.

Oraingoan hain gurea den *tempranilloa* aukeratu dut. Mahats noblea dela esaten da eta leku askotan lantzen den arren, Errioxan inon baino hobeto hazten da. Lekuen arabera ere izen desberdinak hartzen ditu, esaterako, Ribera de Dueron *tinta fina*, Mantxan *cencibel*... Oso mahats fina da, aromatikoa eta kalitate handiko ardaoak ematen dituen. Zaporetsua, afrutatua eta errubi kolore ikusgarri duna. Baina bere ezaugarriak azpimarragarriena ondo zahartzeko daukan ahalmena da. Atsegin, dotorea da. Zinemarekin konparazioa egingo bagenu, *tempranilloa* Katharine Hepburn litzateke eta ez Marilyn Monroe. ^m



Ayoberri sagardotegia

Menu aukera handia, baserri giroan



Aintzane, Pedro eta Irune Elordui, sagardotegiko txingarraren aurrean.

Urdulizko udal mugartean dago kokatuta Ayoberri sagardotegia, baserri ingurune natural eta ederrean. Honi apartakalekua eta umeentzako jolas-tokia duela gaineratzen badiogu, lagunartean zein familia osoagaz joateko leku aproposa dela esan genezake, inolako duda barik.

1944. urtean, Ayo sendiak baserria berriatu eta bertan sagardotegi bat egitea erabaki zuen. Orduetik hona urte asko pasa badira ere, familiakide guztiak jarraitzen dute "aititek" sortutako sagardotegian beharrenean. Gaur egun Pedro dugu burua, baina Aintzane, Irune, Elena, Mila... "Elordui Otegi familiako anai-arrebak" lagunduta. Bezeroentzat duten eskaintza zabala bezain tentagarria da. Astelehenetik ostiralera eguneko menua dago

8 eurotan. Asteburuetan menu bereziak, kartara, gustu guztien atseginerako. Eta astelehenetik igandera bitartean sagardotegietako menu betikoa daztatzeko aukera dago 23, 25 eta 26 euroren truke; "Ayoberri enan egindako makailua dugu eta etxeko berezitasuna, txuletoia txingarretan egina, kilo batekoa, bi kilotakoa...norbenak nahi duenaren arabera". Hau guztia, Astigarratik ekarritako Gurutzeta sagardoaz lagundua, 2005. urtean lehenengo saria eskuratu zuen sagardoa, hain zuzen ere.

Gainera, txingarra egunero pizten dute eta denboraz deituz gero, txerrikume eta arkumea jaterik ere badago. ^m

AYOBERRI SAGARDOATEGIA
Mendiondo Auzoa, 6 - Urduliz.
T. 94 676 42 57

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

**aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu**

uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

<p>URA t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Nagusitzean ametsak galtzen direla diote; baina, benetan amets barik bizi liteke? Agian ametsak gauzatzeko erosoegiak bihurtzen gara, ilusioak betetzearan alde borrokatzeko grina galtzen dugu. Ostera, ametsak hilezkorrak dira... Erosotasunean lokartu gura al duzu?</p>	<p>OTSOA t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Sasiek ez dizute lora ikusten uzten. Eta ba al dakizu sasi artean sortutako lorak lilura bereziagaz hazten direla? Zabaldu begiak! Eta has zaitetz lora jokoan, arantzek zauriz odolustutzen bazaituzte ere! Merez du.</p>	<p>ADARRA t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Urte hasieran emandako berba lasai jan ostean, zer uste zenuen ba tripakominik ez zizula sortaraziko? Ez ezazu ipini errukarri aurpegi hori! Hurrengoan ez zaitetz hain aho handia izan, bestela eros ezazu kamamila tonaka!</p>
<p>AITZURRA t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Bihotzak bi matxura mota izan ditzakeela diote adituek: "labana" erabilita senda litekeena, eta bizitzaren aizkorak eragin-dakoa. Bigarrenentzat ebakuntzak ez du aukerarik eskaintzen, Denbora botika da mina ebakitzeko sendagai bakarra.</p>	<p>HOSTOA t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) "Ispilu aurreko islan gura dudana naiz, baina zure aurrean...", ezagutzen al duzu abestia? Zu zeu zaren bezalako izateko jairo zara, maite zaituenak ulertuko du eta ez duenak konprenitzen ez zaitu merezi. Baietz irribartsuago bizi!</p>	<p>EGUZKIA t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Kanpotik ematen duzuna baino zurekoiagoa zara; badirudi independentea zarela, arduragabekeriak zeintzuk diren antzemateko berezko gaitasuna duzula... baina apur bat ezagutzen zaituztenak konturatu dira itxurak direla, beti jarrera egoista darabilzu!</p>
<p>GARIA t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Erein izanak ez du esangura uzta jasoko duzunik, edo batuko duzunak zure buruan moldatutakoaren antzik edukiko duenik. Ostera, errein ez duenak oso gutxitan jasotzen du! Ala, jaiotzetik izarra burugainean dakarren horietakoa zara zu?</p>	<p>LASTOA t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Dantzara, plazara, kantara, lagunartera... Ba al zenekien Bakardadea eta Herio lagun minak direla? Zuk ez duzu bikote horregaz bat ere ondo ematen! Anima zaitetz! Nahigabe, bihozmin, oinaze eta nekeak pinuzko kaxan sartzeko ordua bada!</p>	<p>IRATZEA t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Bere izaerak segundu gutxi behar izaten ditu zu sutan erretzeko. Eta ezin diozu bere lepoa haginka txikitzeko tentaldiari eutsi. Hala ere, ondo dakizu beneten ez dela horrelakoa, mozorroa daroala jantzita. Lagun izeazu biluzten.</p>
<p>META t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Bihotzak berbetan jakinko bala! Edo buruak taupaden eritmoak izultzen igariko bala! Egin zaitetz hizkuntzalari: azal izezikiozu buruak dakizkien berbakaz, bera ikustean zure bihotzaren taupada-eritmo aldaketak. Edo matematikari: 1+1=1 izan daitezkeela?</p>	<p>HAZIA t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Erregeek ez dizutela sekula eskatutakoa ekarri? Aizu, dagoeneko antimonarkismora salto egiteko adina badaukazu! Olentzerok ere ez? Kixmigaz ibiliko zen tximinokeriatan, eta zure oparia ahaztu. Baina, baina... zuk Kristautasunean sinesten al duzu?</p>	<p>NEGUA t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Ring, Ring, Ring... Honezkerok telefonoaren doinu horiek arkaikoak direla! Barka beza berorrek! Beti garaiakaz batera zu, sasoiari saioikoa eskuratzen duzu beti! Espero, zure garaiko gizartearen beharrak eta egoerak ulertzeko ere hain azkarra izatea.</p>

mungia
oKINdegia

*Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO

[aitormenak]

NEREA ALIAS > ETB1eko *Betizu* saioko aurkezlea

“Lagunak ondoan behar ditut bizitzeko”

Testua: **Bea Majuelo**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Pertsona alaia, bere lagunen laguna.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Niretzako pertsonaia bat egitea erronka bat izango litzateke. Nire buruarekin identifikatzen ez dudan paper bat antzeztea gustatuko litzaidake.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Gure herriaren alde borrokan egin duten pertsonak miresten ditut.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Ba... berandu iristea!

Aitor dezakezun bizio bat.

Oso gozozalea naiz.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Japoniara joango nintzateke berriz ere gustura. Oso kultura ezberdina da eta horrek asko erakarri ninduen.

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?

Lagun baten gezurra.

Zein da zure ametsetako bat?

Amets mordoak daukat, baina nagusiena, ni eta nire ingurukoak gauden bezala jarraitzea da.

Lo egiteko ezer janzten al duzu?

Normalean kuleroak eta kamixeta bat.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Lagunak ondoan behar ditut bizitzeko.

Musika talde bat?

Chambao, adibidez.

Zein da ikusi duzun azken filma?

Princesas, asko gustatu zitzaidan.

Eta irakurri duzun azken liburua ?

Poxpolin kaxa bat bezala, Patxi Zubizarretarena, oraintxe ari naiz irakurtzen. ^m

LABURREAN— Jaiotzez anoetarra bada ere, bi urte daroaz iada Hernanin bizitzen 22 urtetako gazte honek. ETBko lehenengo kateko *Betizu* haurrentzako saio arrakastatsuko aurkezlea izateagatik egin da ezagun Nerea Alias. Bigarren denboraldia da honakoa eta kamara aurrean oso ondo sentitzen dela onartu digu gipuzkoarrak. Telebista mundura modu berezi batean iritsi zen. Batxilergoa bukatu ostean, ikasketak utzi eta Ibarra taberna batean hasi zen lanean. Bertan zegoela, *Kuxkuxero* saiokoen broma baten menpe erori eta hortik aurrera bizitza guztiz aldatu zaiola aitortzen du Nereak. Etorkizunari begira, ez dauka proiektu zehatzik buruan, baina telebista munduarekin zerikusia duen zerbaitetan jardutea gustatuko litzaiokeela azaldu digu.



V. ABRA saria
euskal herriko bertsolari gazteak

Bertsolariak:

Alaia Martin (Oiartzun)

Julio Soto (Gorriti)

Beñat Vidal (Leioa)

Xumai Murua (Azkaine)

Ibai Guridi (Elorrio)

Beñat Gaztelumendi (Añorga)

Andrés Isasi Musika Eskola (Areeta-Getxo)

Otsailaren 25ean larunbata 19:00etan

Sarrera dohainik

